

# ek!

...eta kitto!

Euskara Elkartearen astekaria

2020ko irailak 4 · 1153. zenbakia



## HODEIAK HARRAPATZEA IKUSPUNTUAN

AEKn, IRAKASLE BATEK  
BIK BESTE BALIO DU.

**aek**  
astekaria

MATRIKULA ZABALIK  
IRAILAREN 30ERA ARTE

EUSKARA - IKASTAROAK



### Eibarko AEK euskaltegia

2020/2021 EUSKARA IKASTAROAK

- MAILA GUZTIAK A1,A2,B1,B2,C1,C2
- Azterketa ofizialak prestatzeko aukera

Sastoa kalea 1, 1º solairua  
607 534 357 / 943 20 13 17 - eibar@aek.eus

DIRULAGUNTZAK/BEKAK

EIBARKO UDALA

HABE

Zure bizitza berriaren  
**erdigunean  
gaude**



**ARRATE HOMES • EIBAR**

Etxebizitza eksklusiboak  
**Eibarren bihotzean**

- Garajea eta frastelekua
- Balio anitzeko gela sukaldearekin
- Gimnasioa
- Errebal plazaren ondoan



• **900 11 00 22** •  
**neinorhomes.com**

**LEKU PAREGABEAN BIZI ZAITEZ**

**Neinor Store:** Bidebarrieta, 6 - Eibar

# Jaso onenen aholkua

ERREHABILITAZIO ZORROTZEENEI  
ERE ERANTZUTEKO KONPONBIDEAK

- Fatxaden errehabilitazioa.
- Errehabilitazio integralak.
- Eraikinen ikuskapen teknikoak.
- Txostenak.
- Igogailuendako aholkularitza eta proiektua.
- Udal lizentzien bideratzea.
- Adituak Errehabilitaziorako Laguntzetan.

**Gausark**  
ARQUITECTURA

Tf: 943.44.07.52  
[gausarksl@gausark.es](mailto:gausarksl@gausark.es)  
[www.gausark.es](http://www.gausark.es)



**%20<sub>ko</sub>**

Deskontua EIT idazketan  
Teknikak covid-aurkako neurriekin





## Somos Aholkularitzari eskerrak emanez

Somos Aholkularitzak Eibar Eskubaloia eskaintako laguntza eta erakutsitako konpromisoa eskertu nahi dugu publikoki, gure ondoan bidaiatu baitu azken hamarkada guztian. Datorren denboralditik aurrera gure bideak sakabanatuko dira; baina, agur soilean geratu barik, gero arte bat izango dela espero dugu.

Eibar Eskubaloia taldeak helarazi nahi ditugun kirol eta gizatasun baloreak aholkularitzan balio erantsia izan dutelakoan gaude, eta horren esperoan gaude behintzat.

Hortaz, gure herrian eskubaloia jarduerari eusteko egin duzuen lana eskertu nahi dizuegu lerro hauen bidez. Eskerrak, bihotzez, Somos Asesores osatzen duzuen lan talde osoari.

Eibar Eskubaloia

“Kaka lanak lan txarrak dira, egin nahi ez zenituzkeenak. Gaizki ordainduak, langileak duintasunik eta errespeturik gabe tratatzen dituztenak, txikituta uzten zaituztenak... Egin behar diren lanak dira normalean: pertsonak batetik bestera eramatea, gauzak erakitea, jendea zaintzea, garbitzea... Kontrara, pitorik balio ez duten lanak ongi ordaindutako lanak dira askotan, onura pertsonalak ekartzen dituzte eta norbait garrantzitsua bazina bezala tratatzen zaitu jendeak. Telemarketing eta korporazioen abokatu kabineteko lanposturik gabe mundua leku hobea litzateke. Pentsa zenbat jende ari den egiazko lana egiten pitorik balio ez dutenak bermatzeko, izan euren bulegoak garbitzen edo ezer egiten ez duten horiek besteei eragiten dieten min psikologikoa zaintzen... Lanen erdiak ezabatzea ondorio positiboak izango litzuke artearen eta kulturaren mundutik hasi eta klima aldaketaraino”.

DAVID GRAEBER, Antropologia irakaslea

“Espainiako Estatuaren erdigunean bizi dira bizirauteko ezer produzitzen ez duten 15 milioi lagun. Jakiak, lehengaiak... dena eraman behar da Madril ingurura, energia kopuru izugarriak xahutuz eta Extremadura, Asturias, Galizia eta periferiako ekosistemak txikituz. Noizbait herritarrak ohartuko dira horretaz; alegia, ez dela posible batzuk erabat zaharkituta dagoen Almarazeko zentral nuklearra jasan behar izatea, edo Asturias eta Galizia eukalipto betetzea, edo erreka guztietan ur-jauziak eraikitzea Madrilgo `señoritoek` halako bizi maila izan dezaten. Felipe II.enarekin hasi zen eredu hori deszentralizatu beharko da eta erregai fosilekin galdu ziren hainbat harreman humano berreskuratu: WhatsApp gutxiago eta domino eta karta joko gehiago”.

ANTONIO ARETXABALA, geologo eta irakaslea

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**NAFARRI.-** Nafarreria, biruela. “Nafarrixa da gaitz bat, gure gizaldiak ixia ezagutu ez dabena, izugarriko Jaungoikuan azotia izanda gero”. (Azentua lehelengo silaban egiten da: nafarrixa).

**NAFARRI-PIKATU.-** Nafarreriak aurpegian uzten dituen orbainak. “Gaurko egunian, ez da ikusten inor nafarri-pikautakorik”.



Euskara Elkarte

### ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

### HELBIDEA

Urkizu, 11. 20600 Eibar

### TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

### FAXA 943 20 28 72

### ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

### ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

### ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Itziar Albizu,

Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi

eta Silbia Hernandez

### ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

### KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

### ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

### DISEINUA

Maku Oruezabal

### MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

### ARGAZKI ARLOA

Malen Jainaga eta

Malen Illarramendi

### HIZKUNTZA ARDURA

Juan Andres Argoitia eta

Maider Aranberri

### PUBLIZITATEA

Itziar Albizu eta Belen Ulazia

### TELEFONOA

943 20 67 76

### AZALEKO ARGAZKIA

Odei Jainaga

### BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

### TIRADA

8,150 ale

### INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

### COPYRIGHT-A

...eta kitto!

### LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

(“...eta kitto!”k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)





1



2

## Orain dela urtebe horrelakoak ginen

Aspaldian ikusi gabeko irudia eskaini zigun Ego ibaiak, udako lasaitasuna aprobetxatuz amuarrainak ikusi ahal izan ziren bertan-eta. Bestalde, plazako baserritarrak Rialto barrura sartu ziren kanpoan hasi zituzten karpa berria ipintzeko lanak amaitu arte. Ziaran ahizpek estropada munduan izandako esperientzia gerturatu ziguten. Esteban Oroz Eibarko Artista Elkarteko kideak sariz betetako uda izan zuen, Elgoibarren eta Ceniceron nagusituta. BNI Armagin enpresa-taldeak bost milioi euro fakturatu zituela eman zuen jakitera hirugarren urteurrena betetzera. Abuztuan herrian egindako lanen artean, Calbeton kalea zabaldu zuten irailaren hasierarekin batera. Eibar Foball Taldeak Euskal Herri txapela irabazi zuen lehen aldiz, Tolosan jokotutako finalean Realari 2-1 irabazita. Eta Jon Osa igerilariak zilarrezko domina eskuratu zuen Espainiako txapelketan-

1- Eibarrek Euskal Herri txapela irabazi zuen Tolosan. 2- Esteban Orozek hainbat sari irabazi zituen bere koadroekin. 3- Amuarrainak ikusi ahal izan ziren Ego ibaian. 4- Baserritarrak Rialto barrura sartu ziren karpa egiten zen bitartean. 5- Ziaran ahizpek arraunean debutatu zuten. 6- Calbeton kalea zabaldu zuten bertako lanak amaitu ondoren.



3



4



5



6





## Saharako umeei bidaltzeko neguko erropak biltzen ari dira

>>> COVID-19aren pandemiak eragin duen egoera dela eta, Oporrak Bakean programarekin Sahararik Euskal Herrira uda pasatzera etortzekoak ziren 300 haur inguru kanpalekuetan geratu behar izan dira. Beste urte batzuetan, abuztuaren amaieran etxera itzuli aurretik, hemengo familia eta lagunek oparitutako erropa eta bestelakoekin betetako maletak eramaten dituzte, kanpalekuetan oso egoera latzean bizi direnen artean banatzeko, baina oraingoan etorri ez direnez, ezin izan dute maletarik bueltan eramán.

Hala ere, Eibar-Sahara Elkar-teak, beste hainbatekin batera, Saharako kanpamentuetara bidaltzeko 300 maleta prestatu nahi ditu, 10-16 urte bitarteko haurrek erabiltzeko moduko neguko arrokekin (txamarrak, kirol-jertseak, zapatilak, manga luzedun kamisetak, txandalak...). Astelehenean, 17:00etatik 18:30era bitartean, Txonta kaleko 42. zenbakian egongo dira jendeak eramaten duena biltzen eta, bestela, 659591607 zenbakira deitu edo idatzita jar daiteke kontaktuan arduradunekin.

## Janari-denda berria zabaldu dute Barrena kalean, aspaldiko partez

>>> Aste honetan, martitzenean, zabaldu zituen atea Barrena kalean dagoen janari-denda berri eta bakarrak, kale horretako 26. zenbakian. Txaltxa Zelaian eta Legarren fruta-denda bana martxan dauzkaten ugazaba berberak animatu dira behealdean hirugarren denda zabaltzera, orain arte jendeak egin dien harrera onarekin animatuta. Gainera, denda berrian fruta saltzeaz gain, jateko beste produktu batzuk ere ipini dituzte salgai, jendearen eskaerari hobeto erantzun ahal izateko. Izan ere, Azitain, Barrena eta

inguruan bizi direnak sarritan kexatu dira, Urkizutik behera dendarik ez dagoelako eta, beraz, edozer behar izanez gero, gertuen geratzen den saltokiraino ailegatzeko asko ibili beharra dagoelako. Gainera, bizilagunetako asko zaharrak dira eta batetik bestera ibiltzeko zailtasunak daukate. Lidl supermerkatua Azitainen egon zen bitartean hala moduz maldatzen ziren asko, baina tokiz aldatu eta itxi zutenetik kekek etenbarik ugaritzen joan dira, batez ere konfinamenduaren eraginez berez txarra zen egoerak okerrera egin zuenean.



info@gerritek.net  
www.gerritek.net

**SOLUZIO INFORMATIKOAK**

Marka guztietako zerbitzu teknikoa eta salmenta

Neurrira egindako software-aren garapena

**Gerritek**  
INFORMATIKA

Txaltxa-Zelai, 4-6 Tel: 943-033892

Juan Gisasola, 5  
943 20 39 59  
www.linkidiomas.com

**Link**  
**Idiomas**

MEMBER OF CAMBRIDGE ESOL CENTRE ES438

**- INGELESA -**  
klaseak goiz eta arratsaldez

UME, GAZTE ETA HELDUENTZAT  
TALDE MUGATUAK  
BAKOITZARI EGOKITUA  
ERREKUPERAZIOAK, ESKOLARAKO LAGUNTZA  
CAMBRIDGE AZTERKETETARAKO PRESTAKETA  
MAILA GUZTIAK

Cambridge English Language Assessment  
Exam Preparation Centre

ALTE



## Astelehenean itzuliko dira asteroko kontzentrazioak

>>> Abuztuko etenaldia eta gero, astelehenean (hilak 7an) helduko diote berriz ere orain arteko martxari Eibarko Pentsiodunen Plataformakoei eta Untzagan kontzentrazioa egingo dute astelehenero, “azken bi urte eta erdian egin dugun bezala”. Ekitaldia 12:00etan hasi eta 12:15ean amaituko da. Plataformako ordezkariak mobilizazioekin jarraitzea beharrezkoa ikusten dute, euren eskari eta aldarriak lortu bitartean. Horien artean daude, besteak beste, 1.080 eurotako gutxieneko pentsioa bermatzeko eskaera, baita osasun-arretarako zerbitzu publikoa pribatizatzearen kontrako jarrera ere. Hala ere, kontzentrazioan parte hartu nahi dutenei gogorarazi nahi diete nahitaezkoa izango dela maskara erabiltzea eta pertsonen arteko bi metroko segurtasun-tartea gordetzea.

## Euskaraz hitz egingo duen Jaurlaritzaren aldeko manifestuarekin bat egin du ...eta kitto!-k

>>> 390 kazetari baino gehiagok manifestua aurkeztu diote Eusko Jaurlaritzari, sailburu eta arduradun euskaldunak izendatu ditzan eskatzeko. Euskal Herri osoko hainbat komunikabideetako kazetariak sinatu dute euskaraz hitz egingo duen Jaurlaritzaren aldeko manifestua, eta aurreko astean aurkeztu zuten Martxelo Otamendi Berriako zuzendaria eta Maite Artola Euskadi Irratiko esatariak Donostiako Koldo Mitxelena Kulturgunean. ...eta kitto!-ko hainbat kazetari ere izenpetu dute manifestua. Aurkezpenean adierazi zuten, “ez dira aski” euskarazko adierazpen irakurriak, ezta “ardura gutxiagoko ordezkarien euskarazko bozeramailetza behartuak” ere. Ildo horretan, euskal kazetaritza profesionalari eta herritarrei euskaraz hitz egingo duen Eusko Jaurlaritza “zor” zaiela azaldu zuten. Manifestuaren arabera, “berdintasun defizit bat zuzentzea” da eskakizun horren helburua, eta bertan nabarmentzen da erakun-



de publikoek “erantzukizuna” dutela euskararen normalizazioan. Aldi berean, manifestuan azaltzen da “une historikoak” bizitzen ari dela gizartea eta “inoiz baino beharrezkoagoa” dela komunikabideetako profesionalen lana. Kazetariak “notiziaren sorburura” joan behar izaten duela dio manifestuak, kazetariaren betebeharra dela galderak egitea, eta arduradun politikoen erantzukizuna dela horiei bi hizkuntza ofizialetan erantzutea.

## Arrate egunerako mendi martxa antolatu du Eibarko Sarek

>>> Izan Bidea ekimenaren baitan, Eibarko Sarek mendi martxa antolatu du Arrate egunerako (irailak 8rako). Goizeko 10:00etan Urkizutik abiatuko dira eta Santa Kurutz, Usartza eta Akondiako San Pedro ermitatik pasatu eta gero, eguerdian ailegatuko dira Arratera, 13:00etan kontzentrazioa egiteko bertan.

Antolatzaileen berbetan, “esan beharrik ez dago guztiok maskarekin eta neurririk ondo gordeta ibili behar dugula. Arrate egunean ez da festarik, ez txosnarik, ez erromeriarik izango, baina euskal presoek eskubideen aldeko al-



darria bai, aurten ere han izango da. Eibartar guztiak gonbidatu nahi ditugu gurekin batera mendi martxa honetan parte hartzera eta, mobileko aplikazioa baliatuz, Ibiltarien Sarean kilometroak pilatzera”.

## Irailean ospatuko dituzte Lehen Jaunartzeak Eibarko elizetan

>>> Bizi dugun egoera berezi honek hala behartuta, maiztzean ospatu ohi diren Lehen Jaunartzeak atzeratzea erabaki zuten, aurrerago, egoerak hobera egitean ospatzeko asmoz. Gauzak horrela, irailean izango dira Lehen Jaunartzeak aurten Eibarko parroketan. Horrela, Amañako Salbatore parrokiakoak izango dira lehenak ospa-

tzen, irailaren 12an, zapatuan; handik astebetera, hilaren 19an eta 20an, San Andres parrokiakoak txanda izango da; irailaren 20an ere ospatuko dituzte jaunartzeak San Pio X.aren elizan; eta iraileko azken asteburuan, zapatuan (hilaren 26an) egingo dira jaunartzeak Karmengo Amaren elizan (Karmelitetan).





## Errebal amaitzeko 710.000 euro gehiago eskatu dituzte

>>> Eibarko EH Bildu eta EAJ-PNV taldeetako udal ordezkariak haserre bizian agurtu zuten ikasturtea, Errebalgo lanen harrira uztaileko azken plenoan jakinarazi zutena entzun eta gero. Izan ere, Errebalgo eraikina egiten ari den enpresak lanak amaitu ahal izateko aurreikusita zegoena baino 710.000 euro gehiago behar dituela esan dio Udalari. Horren berri izan eta jarraian, erabateko desadostasuna azaldu zuten Bilduko ordezkariak: "Gainera, 710.000 euro gehiago bideratzeak ez du esan nahi obraren likidazioa heltzerakoan enpresak diru gehiago eskatuko ez digunik. Gogorarazi beharra dago azken lizitazio prezioa 6.400.000 eurotan jarri zuela Udalak. Iza-Campezo enpresak irabazi zuen

lehiaketa publikoa, milioi bateko beherapenarekin, 5.370.000 eurotan. Dagoeneko 710.000 euro gehiago eskatu dizkigute. Likidazioan beste 300.000 euro eskatuz gero, obraren amaierako prezioak Udalak markatutako lizitazio prezioa gaindituko luke!".

Hori gutxi balitz, lanak amaitzeko hitzartu zituzten epeak ez dira betetzen ari eta, hainbat arrazoiengatik pilatzen joan diren atzerapenen eraginez, hitz emanda zegoena baino hamar hilabete geroago amaituko dituzte lanak, beste okerrik ez bada behintzat.

Eibarko EAJ-PNV udal taldearen ustez, gertatu dena "aurreikusitako zitekeen zerbait" zen eta Josu Mendicuten bozera maile jeltzaleak dioenez, hala-

xe ohartarazi zien berak 2018ko abenduan: "Proiektu erreformatua korrika eta presaka ari zarete tramitatzen, maiatzeko hauteskundeak baino lehen makinak sartu ahal izateko. Gauzak horrela eginda, iraganeko akatsak berriro ari zarete errepikatzen. Ondo berrikusi gabe ari zarete obra esleitzen". Urte eta erdi igaro den honetan, EAJk orduan iragarritakoa bete-betea asmatu zutela uste dute.

Udaletik kanpora ere hautsak harrotu ditu albisteak. Errebal Plataformak idatziz adierazitakoari jarraituz, horrelako gainkostuak uztailearen amaieran onartzeari "azpijoko maltzurra, besterik ezin zaio esan". Hala ere, horrela jokatu arren "iraillean azalpenak eman beharko dituztela" ohartarazi dute Plataformatik. Bestalde, Errebalgo lanen inguruko gastu guztiak zehatz azaltzeko sarritan eskatu arren, oraindik zain daudela

## AUTUAN

### AMAÑAKO JAIEN ALDEKO ZOZKETAN SARITUTAKO ZENBAKIAK

Amañako Jai Batzordeak antolatutako zozketan, hauek izan dira saritutako zenbakiak: 07651 eta 96435 (uztailearen 28an eta 29an ONCE-ren zozketako saridunak). Hori etako bakoitzari mountain bike bana egokitu zaio opari gisa.

### MARTITZENERA ARTE ZABALDUKO DUTE KANPOKO IGERILEKUA

Eibarko Kirol Patronatuak jakinarazi duenez, estali gabeko igerilekua irailaren 8ra arte, Arrate egunera arte, egongo da zabalik. Aurten, egoera berezia izanik, txanda hartu behar da igerilekuan sartzeko, jende pilaketak ekiditeko asmoz. Horrela, erabiltzaileak igerileku inguruan marraztutako tokietan jarri behar izaten dira, sarreran gorputzeko temperatura neurtu eta eskuak garbitu ondoren. Bestalde, Udal Kirol instalazioak berriz martxan jarri dituzte, pandemiak eragindako egoera berrira egokitu eta gero.



Baimendutako  
harategia  
Euskal Okela  
Carniceria  
autorizada

Bidebarrieta, 20  
Especialistak plater prestatu  
eta haragi bikainetan  
**ETXERA  
ERAMATEN DIZUGU**

943 20 16 69

 @Oberenaharategia



&lt;&lt;&lt; EIBARKO BASO BIZIAK &gt;&gt;&gt;

# “Eibartarrek inguruko basoek duten garrantziaz jabetzen dihardute”

Gure mendien itxura zeharo aldatu da azken urteotan. Intsignis pinuen banda marroiaren gaixotasunak alerta zabaldu du herrian eta hainbat eibartarrek egoerari aurre egiteko prest agertu dira Eibarko Baso Biziak taldea sortuz. Facebooken gai honen inguruan berba egiteko taldea sortu dute eta sinadura bilketa hasi dute baso jasangarrien alde ([http://bit.ly/firma\\_baso\\_jasangarrien\\_alde](http://bit.ly/firma_baso_jasangarrien_alde)). Taldeko Mikel Jauregi Oregirekin egin dugu berba.

## Zenbat lagunek egin dute bat Eibarko Baso Biziak ekimenarekin?

Taldean sei kide gara, momentuz. Ekimena abian jartzeko ez genuen hasieran jende gehiagoren beharrik ikusten, nahiz eta jende asko laguntzeko prest agertu den, eskertzekoa dena. Bestalde, taldea ezagutarazteko, besteak beste, EIBARKO BASO BIZIAK orria sortu genuen Facebooken. Hilabete batean 500 lagun baino gehiagok egin dute bat taldearekin.

## Nolako egoera bizi dugu Eibar inguruko mendietan?

Gure herriko Pinus radiata edo Intsignis pinuaren landaketei eragin zien banda marroiaren gaixotasunak sorrarazi zuen zurgintza sektorearen krisiaren ondoren, asko izan ginen euskal baso politikari, eta bide batez, Eibarko basoen kudeaketari zegokionez inflexio puntu baten aurkitzen ginela uste

izan genuenok. Gure herriaren inguruan egin berri diren eukalipto landaketa handiek okergabiltzala erakusten digute. Euskal instituzioek hamarkadetan zehar bultzatu dituzten politikek, egun gure mendiek erakusten duten egoera tamalgarrira eraman gaituzte. Ustiapen estentsibo industrialean oinarritutako politikak dira, produktibitatea eta lurjabe handi gutxi batzuen epe motzeko onura ekonomikoa lehentasun dituztenak. Ingurugiroari eta ongizate sozial edo kulturalari dagozkion alderdiak alde batera lagata, guz-

**“Eukalipto landaketek oker gabiltzala erakusten digute”**



ARGAZKIA: AINHOA ARGOITIA.

tiontzat onuragarri liratekeen eta inolako arazorik gabe lurjabe txikien interesekin uztartzeko moduko politikak bultzatu beharko lirateke.

## Egoera horrek nolako ondorioak izan ditzake epe ertain eta luzera?

Eukaliptoak bezalako zuhaitzek bertako landaredia eta animaliak desagerraraziko dituzte, ur iturriak agortuko, lurra azidotuko eta suteen zabalkuntza asko erraztuko duelako. Gainera, duen birkimatzeko ahalmenak asko zailduko du behin sartutakoan kentzea.

## Zein irtenbide ikusten diozue?

Hiru puntu jorratzen ditugu arlo horretan. Batetik, lehen sektoreko lurjabe txikiekin lan egitea, jasangarriak diren aukera ekonomikoa sustatzeko. Bigarrenik, bertako basoa zabaltzen joatea eta eusten saiatzea. Eta hirugarrenik, basoen

kontserbaziorako herritarrak kontzientziaztea eta parte hartzea sustatzea.

## Sinadurak jasotzeko kanpaina abiatu duzue. Zein asmekin?


Sinadura bilketaren azken helburua Udalean mozioa aurkeztea izango litzateke. Denbora gutxian 400 sinaduratik gora batu ditugu. Berehala, zuzeneko sinadura bilketa jarriko dugu abian. Harritzekoa da zelako babes jasotzen ari garen. Eibartarrek gure ingurugiroak, eta batez ere, gure inguruko basoek duten garrantziaz jabetzen dihardute.

## Ekimen edo kanpaina gehiago egiteko asmoa duzue?

Bai, hau hasiera besterik ez da. Mozioaren ekimenaren ondoren beste batzuk etorriko dira guztion artean konponbideak bilatzeko: mahai-inguruak, kanpainak eskoletan, jardunaldiak, eta abar.



### Positiboen eboluzioa Eibarren uztailearen 11tik



# 526 koronabirus kasu Eibarren izurritea hasi zenetik

Uztailaren bigarren hamabostaldian Eibarren eta Ermuan piztu zen fokoak urduritasuna eta kezka handia sortu zuen herritarren artean. Uztailean 219 positibo baieztatu ziren Eibarren PCR frogen bitartez; abuztuan, berriz, kopurua 75era jaitsi da. Datuak ikusita, gure herrian egoerak hobera egin duela esan daiteke, baina ikusi beharko da oporretatik bueltan zer gertatzen den. Bitartean, Eibar Ospitalean herritarrei PCRak egiten jarraitzen dute egunero.

**E**ibarren 526 koronabirus kasu baieztatu dira martxoan izurritea hasi zenetik, eta hildakoak 25 izan dira.

Konfinamenduaren osteko asteetan COVID-19ak laga zigun "su-etena"ren ondoren, uztaila iritsi zen, eta berarekin batera gaixotasunaren berragertzea, Gipuzkoan ordura arte emandakogarrantzitsuena. Debarrenean 519 positibo berri atzeman ziren uztailean, gehienak Eibarren (219) eta Ermuan (232). Eibarko daturik txarrena uztailean 19an eman zen, 24 positiborekin.

Hurrengo bileran, abuztuan, kopuruak behera egin du gure herrian, 75 kasu berriekin. Al-

dameneko herriei begiratzen badiegu, Ermuan beherakada nabarmena gertatu da; koronabirusak gogor jo zuen Ermua uztailean (232 kasu), baina abuztuan kopuruak nabarmen egin du behera, 28 kasu erregistratu baitituzte. Elgoibarraren kontrako joera izan da: uztailean 29 izan ziren, eta 95 abuztuan.

Oporretatik bueltan, ikusteko dago hemendik aurrera zer gertatuko den. Bitartean, Eibar Ospitalean egunero jarraitzen dute osasun arloko langileek herritarrei PCR frogak egiten. Eguaztenean 9.145 proba egin ziren EAEn, eta, haietatik, 605 positiboak izan ziren. ■



Egunero errepikatzen den argazkia. MALEN ILLARRAMENDI.



Eitzagako bizilagunek behin eta berriz salatu arren, egunero ehundaka kamioi pasatzen dira zabortegitik hartutako lur eta hondakinekin eta oso kezkatuta daude euren osasunarengatik.

# Zazpi hilabete eta gero, oraindik ere hautsak harrotzen

Domekan, irailaren 6an, beteko dira zazpi hilabete Zaldibarren Verter Recycling enpresaren zabortegia amildu eta Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran beharginak milaka eta milaka kilo zabor azpian desagertu zirenetik. Harrezkero, ia egunero sortu da gertatutakoari buruzko albistiren bat. Horien artean pozgarriena abuztuaren 19koa, DNA proben lehen emaitzen arabera hiru egun lehenago zabortegian aurkitutako gorpuzkiak Alberto Sololuzerenak zirela baieztatu zutenean. Eta, hala ere, ezin guztiz pozik egon, Joaquinek desagertuta jarraitzen duela jakinda.

**U**darekin batera ailegatu zaizkigu Zaldibarko hondamendiari lotutako gertakaririk garrantzitsuenak. Uztailaren azken egunetan, ezustean jakin genuen Jose Ignacio Barinaga Verter Recyclingeko jabea, Arrate Bilbao enpresako administratzailea eta Juan Etxebarria zabortegiko ingeniari teknikoa atxilotu zituela Ertzaintzak. Auzi honetan hasieratik gertatu den bezala, orduan ere batetik eta bestetik egin zituzten adierazpenek, kontraesan ugarirekin, jendea nahastu baino ez zuten egin. Hala ere, hiru atxilotuak epailearen aurrera eraman zituzten eta, arduragabekeriazko homizidioa egotzita, epaileak aske laga zituen, baina pasaporte kendu zien eta hilean behin epaitegira joateko agindu zien, sinatzera.

Atxiloketen berri izan eta jarraian, Zaldibar Argitu plataformak horren inguruko adierazpenak egin zituen: “Laster

sei hilabete beteko dira eta, berandu etorri den arren, guretzat berri ona izan da. Erantzukizunak argitzeko bidean urrats bat eman dela uste dugu eta mugimendu hau beharrezkoa zela iruditzen zaigu”.

Hondamendia gertatu eta lehen egunetik, herritarren ekimenez eratu zen Zaldibar Argitu plataformatik etenbarik ari dira gertatutakoa argitzeko eta horren inguruko erantzukizunak eskatzen. Baina ez dira erantzun baten zain jarraitzen duten bakarrik. Izan ere, Eitzagako bizilagunak erabat ahaztuta sentitzen direla salatu eta salatu arren, orain arte ez dute lortu inork bere eskaerei erantzutea eta hainbat mobilizazio egin dituzte hori salatzen. Bertako bizilagunak euren osasunarekin kezkatuta daude, are gehiago bertan amiantozegoela jakin zutenetik eta, besteak beste, azterketa medikoak egitea eskatu dute, baina oraindik ez dute ezer lortu. ■





**PEDRO ALBERDI**

### Noranahi eta edozertarakoa

Altua eta luzea zen. Baita zabala eta sendoa ere. XXL neurria. Hirurogeita bi urte eta aitita izan arren, gazteagoa ematen zuen, batez ere buruko ile-mataza eta *frequillo*ogatik. Nik behin baino gehiagotan esan nion, hara seinalatuz: "Hi, Alberto, a zer alfombra daukaan kaskoan!" Eta berak gustura egiten zuen barre.

Pertsona umoretsua zen. Gorpuzkera aita-zenarena zuen, dudarik gabe; ile-mataza eta *frequillo*, ostera, ez. Hark *entrada* handiak zituen. Alberto ez zen geldu egotekoa, eskuartean beti zeozer eduki behar zuena baizik. Gurera herramienta-kaxarekin etortzen zen sarritan. Gure arotz partikularra zen, gure elektrizista, gure iturgina, gure mekanikoa... Zeozer apurtuz gero, "*hori Albertok konponduko du*" esan eta apurtutakoa bertan behera utziko genuen, hura etorri arte. Autoarekin, berriz, zer esanik ez. Nahiz eta mila kilometrora egon, hari deitu eta segituan bilatuko zigun konponbidea. Denetik egiten zekien. Gu, haren ondoan,

inutilak ginen. Esango nuke, funtsean, haren ametsa baserritarra izatea zela, edo baserrian bizitzea, behinik behin. Izan ere, hura mendian beste bat zen. Transformatu egiten zen. Bere-bereko ingurunean zegoen, eta izugarri gozaten zuen. Lore eta belar mota guztiak ezagutzen zituen, landareak eta zuhaitzak, hegaztiak eta abereak, baratzeko ortuariak eta soroko beharrak, urtaroen zikloak eta eguraldi aldaketak... Behin bakarrik huts egin zuen; nire aurrean, behintzat. Zuhaixa bat zen. Ukitu eta usaindu arren, ez zion antzik eman. *Aligustrea* zuen izena. Mendikotzat zuen bere burua, bai. Beharbada horregatik

gustatzen zitzaizkion Oesteko pelikula ere; hots, halako filmetan paisaia ikusgarriak agertu ohi direlako, hala nola basamortuak, errekek, basoak, eguzki-galdak, hodeiertzak, larreak, zerumugak... Eta paisaiez gainera, naturako beste hainbat elementu, hala nola piztiak, zaldiak, ganadua, lurra, hautsa, *kaktusak*, tximistak, trumoiak, erauntsiak... Guztiarekin ere, haren gertu-gertukoek diotenez, haren buru-bihotzetan, ooren gaintetik, Nati emaztea, Nahia alaba eta Oier ilobatxoa zeuden, eta inoiz ez zuten pozagorik ikusi, haiekin zegoenean baino. Hitz bitan: noranahi eta edozertarakoa zen.



**ZURICH**

**Lejardi S.L. Aseguru Agentzia**

Tel. 943 20 11 49 / Plaza Barria, 8 / Eibar



## Nahi eta ezin

Beste urte batzuetan, sasoi honetan, eguraldiaren iragarpenari eta zeruari begira egoten gara, ia Arratietan ateri egongo den jakin nahian. Baina aurtengo egoera oso bestelakoa da.

**P**andemiarikegongo ez baltz, egunotan tabernetan salgai izaten ditugun bertso-afarirako zenbat txartel saldu diren kontatzen eta kittonbolako azkeneko opariak jasotzen egongo ginateteke.

Kittonbolako apalak montatzen geundela Arrateko zelaia txoznaz betetzen ziharduela ikusiko genuke, eta eibartarrok ikasturtea gogotsu has-teko prest geundela sumatuko genuke.

Aurtengoan ezingo ditugu horiek guztiak egin eta ez da

ikasturtea hasteko modurik gozoena, inondik inora. **Uda ostean herritarrekin izaten dugun lehen harreman zuzena izaten da eta askoren falta igarriko dugu.**

Kantabriako Lorea eta Maitte, soinua kontrolatzen aritzen den Angel, bertso-taldeko Mikel, Jon, Rafael... Baina batez ere bazkide eta herritarren musu, besarkada eta saioaren osteko iritzien falta sumatuko dugu... Eva, Ihintza, Emi, Ainhoa, Nahia, Maier, Goretti, Josu, Edurne, Amaia, Mikel,

Josean, Arantza, Aitor... Baina etorriko dira berriz ere bertso-afariak, eta berriz ere besarkatuko gara, eta hurrengo urterako ideiak ematera hurbilduko zarete eta hobetzeko proposamenak aintzat hartuko ditugu.

Bien bitartean, gauzak beste era batera egiten saiatuko gara, jakinda ez dela gauza bera, inoiz ez dela berdina izango aurrez-aurre eta talde handian egotea, edo talde txikian edota pantaila baten atzean aritzea...

### Tonbolariz ez

Berdin-berdina gertatuko zaigu Arrate egunean ere, tonbolako azken opariak ipintzen egoten garenean hurbiltzen diren herritarrengandik jasotzen ditugun animoak, Xabierren bedeinkapena, Alex eta Jose Luisen opariak zeintzuk diren jakitean elkarrekin egiten ditugun barreak, Arratek txakurrekin oinez igo ostean poltsikotik ateratzen dituen bonboiak bezain goxoak diren

musuak jasotzen ditugunean, Mariano txanpon bila datorrenean ematen digun besarkada, Milaren irribarrea tonbolako txartelak zabaltzean, Ianen iskanbila tonbolatik bost metro tara dagoenean, gautxorien txantxeekin egiten ditugun barreak, umeen galdera amaitezinak... Horrek guztiak lagatako hutsunea betetzea ez da erraza izango.

**Baina Arratiak, hori guztia izateaz gain, guretzat urtea amaitzeko ezinbestekoa den aire freskoa ere badira.** Nekez amaituko dugu urtea tonbola, sagardo eguna, pailazoen emaldirik... egin gabe.

Urtea amaitzeko diru-sarrea horiek gabe benetan aldapatsua izaten ari den sasoi hau inoiz baino zailagoa izango da. Baina eguzkiak egunero argitzen duela ezin dugu ahaztu eta, lehenago edo beranduego, hau amaituko da; bitartean zuekin berriz ere Arraten elkartuko garelako amesten jarraituko dugu. ■







## Berbetan hasteko prest?

Hainbat bider aipatu dugu koronabirusaren kalteetako bat dela euskara gero eta zokoratuago egotea. Aurretik ere bigarren mailako "gai" moduan hartzen zena oraingoa soto-azpiko mailara jaitsi da.

**N**orbanakoen hizkuntza-  
eskubideak bermatzea  
zerbait anekdotikoa dela  
dirudien sasoi honetan, gizarte  
moduan edo hizkuntz talde mo-  
duan izan ditzakegun eskubi-  
deak ia desagertuta daude. Nola  
egingo du aurrera izaera soziala  
duen zerbaitek (hizkuntzak)  
sozializazioa gero eta zailagoa  
denean? Erabilpenak, prakti-  
kak dakar edozein hizkuntza-  
tan gaitasuna, erosotasuna, eta  
hizkuntza beraren normaliza-  
zioa eta biziraupena, hizkuntza  
bizia izatea, alegia. Baina ahal  
dela burbuila sozialetan ari-  
tu behar dugun sasoi honetan,  
zein da inguruan euskara prak-  
tikatzeko aukerarik ez dutenen  
irtenbidea? Euskara eskola es-  
parrura mugatuko da ikasleen  
kasuan? Eta gurasoen kasuan?  
Helduenean?

**Berbetan mintzapraktika-  
programaren helburua hori  
da: euskara praktikatzeko au-  
kerak eskaintzea.**

Parte-hartzea DOAN izateaz  
gain ezin da errazagoa izan!

Mintzapraktikako taldeetan  
euskeraz ondo hitz egiten dute-  
nak euskera praktikatu beharra  
dutenekin elkartzen dira, au-  
rrez-aurre, tabernako terraza  
batean, parkeko bankuan edo  
pasealdi batek eskaintzen duen  
giro informalean.

**Parte-hartzea doan izateaz  
gain oso erraza da.**

Antolatzaileen hitzetan **"bana-  
ka zein taldeka eman dezake-  
zu izena**". Hau da, banaka izena  
eman eta geuk topatuko dizugu  
taldea, zukesandako ordutegia-  
ren arabera, edota zuen kua-  
drila, parkeko lagun edo ohiko  
taldean ere eman dezakezue  
izena. Taldeak astero ordube-  
te edo ordu eta erdiz elkartzeaz  
gain, ikasturtean zehar hain-  
bat irteera, tailer eta jarduera  
osagarri eta dibertigarriak ere  
egingo ditugu".

**Baina badago euskera onli-  
ne praktikatzeko aukera ere,**  
ordutegiengatik, lasaitasuna-  
gatik, familia ordutegiengatik  
edo dena delakoarengatik



presentziala beharrene beste  
era honetan ere egin baitaiteke  
mintzapraktika.



**Gurasoak Berbetan ere ikas-  
turtearekin batera hasiko da.**

"Gurasoak Berbetan familietan  
pentsatzen sortu genuen eta  
helburu bera du: euskara prak-  
tikatzeko. Kasu honetan astero-

ko funtzionamendua bera iza-  
ten da: astean behin gutxienez  
euskara praktikatzeko elkartzea  
batetik, eta bestetik ekintza  
osagarriak ditugu, familietan  
pentsatutakoak eta umeeekin  
egiteko moduko planak izaten  
dira", adierazi digute antola-  
tzaileek.

Datozen asteotan ikastetxe  
guztietatik pasatuko dira...eta  
kitto!-ko teknikariak egitasmoa  
azaldu eta informazioa bana-  
tzera. ■

Informazio gehiago nahi  
izanez gero lasai deitu  
**943200918** telefonora edota  
**elkartea@etakitto.eus**  
helbidera idatzi.

**S**ei hilabete eman dituzte haur eta nerabeek ikasgeletara joan gabe. COVID-19ak hilabete konplikatuak eta gogorrek ekarri ditu etxeko txikientzako ere, eta astelehentik aurrera ikastetxe barruko "normaltasun berrira" egokitu beharko dira.

Ez dira guztiak batera hasiko: DBHko 3. mailatik aurrerakoentzako eta Lanbide Heziketakoentzako beranduago hasiko da berritasunez beteta datorren 2020-2021 ikasturtea.

Eskoletan sartzeari buruzko osasun-neurriak uda osoan aipatu badira ere, Hezkuntza Sailak aurreko astean zehaztu zituen. Protokoloa berandu heldu zaie ikastetxeei. "Sekulako urduritasuna sortu da, abuztuaren amaierara arte itxaron behar izan dugu-eta. Berandu da, baina, bestalde, ulergarria izan daiteke azkenmomentura arte itxarotea, egoera zein den ikusteko eta egoera horretara ahalik eta hoberen moldatutako planak proposatzeko", uste du Juankar Olaeta Aldatze ikastetxe zuzendariak.

Abuztuaren amaieran Hezkuntza saileko agintariek iragarri zuten, "6 urtetik gorako ikasleek maskarilla eraman beharko dute nahitaez, 1,5 metroko distantzia bermatu arren, eta ikastetxe bakoitzak ardura-dun bat izendatu beharko du, zentroaren bilakaera epidemiologikoa gainbegiratzeko".

### **Ikastetxeak uda aurretik lanean**

Ikasturte berrian bete beharreko baldintzen zehaztasunak orain dela egun gutxi iritsi badira ere, ikastetxeak ez dira geldirik egon eta nor bere kontingentzia-plana landuta zeukan udako oporren aurretik. "Lan handia egin dugu ikastetxe barruko protokoloa prestatzeko, eta gurasoei uztailean jakinarazi genien. Egoera etengabe aldatzen doa, eta orain, irailean, Hezkuntza Saitetik igorritako neurrietara egokitu behar izan dugu", azaldu digu Ane Egidazu San Andres ikastetxe ikasketa-buruak. Berritasun handiena maskarillen erabilera

# Baldintza bereziekin hasiko da ikasturtea

Pandemiak ekarri dituen baldintza berezietan hasiko dute ikasturtea Eibarko ikastetxeek. Txikienak irailaren 7an, astelehena, hasiko dira, eta handik astebetara DBH-3tik aurrerakoak. Urduritasuna nagusi da. Jarraitu beharreko protokoloa aurreko astean eman zuen ezagutzera Hezkuntza Sailak, baina gure herriko ikastetxeetan ez dira geldirik egon. Denbora asko daramate itzulera antolatzen. Uztailean prest zituzten kontingentzia-planak. Hala ere, oraindik erantzunik gabeko galderak daudela diote.



**Ikastetxe barruan maskarilla derrigorrezkoa izango da 6 urtetik gorakoentzat.** ARGAZKIA UNESCO. ORG

izan da: "6 urtetik gorako guztiek eraman beharko dituzte, baita gela egonkoredo burbui-la-taldeetan ere".

Aldatze ikastetxean ere ikasturte hasierarako planifikazioa, prebentzio-neurriak eta informazio guztia uztailean jarri zuten gurasoen esku, "era pedagogiko batean, infografia baten bidez", adierazi digu Juankar Olaeta Aldatzeko zuzendariak. Osasun-neurriak eta

arlo teknologiko eta emozionaleko gomendioez gain, hor azaltzen zuten, besteak beste, ikastetxea sektoretan banatuta egongo dela ("sektore blokeagarriak" deitzen direnak; zerbait gertatuz gero eta itxi behar baldin bada, sektore hori bakarrizatea, eta ez ikastetxe osoa). Horrez gain, "plano batzuen bitartez zirkulazio-fluxuak egin genituen, guztiok jakiteko ikastetxean nondik

ibili ahal izango garen, ez baita izango eremu guztiz librea", dio Olaetak. Bizikidetzatalde egonkorrek sortzea aurreikusitzen, orain Jaurlearitzak atera duen protokolo osagarrian ere agertzen dena.

Protokoloak egiteko ikastetxeen aldetik lan ona egin dela uste du Olaetak: "Defentsa-plan on bat eginda dago. Horrek dena konponduko duela? Ez dut uste gehiago egiterik dagoenik. Ematen du dena jokatzen dela ikastetxean, baina nire ustez guztiz kontrakoa da, dena jokatzen da ikastetxeetatik kanpo. Europan ikusten ari denez, egon diren kutsatzeak kanpotik heldu dira ikastetxeetara, eta ez alderantziz". Gizarte osoari eta eskolei ere dagokie, bere ustez, umeak eta gazteak kontzientziaztea, "gure kasuan gaia eskola curriculumean txertatuz".

### **Burbuila-taldeak**

Ikastetxe barruan talde egonkorrek edo burbuila-taldeak mantendu eta errespetatu beharko dira, hau da, "maila desberdinetako ikasleak ezingo dira euren artean elkartu edo nahastu, ezta patioko orduan ere", azaldu digu Ane Egidazu. Jolastokiaren ordutegiak ere aldatu egin behar izan dituzte, maila bakoitzak bere eremua eta denbora-tartea izateko. "Gauzak errazteko, ikastetxe ondoan dagoen Txomoko es-

**"Ikastetxeo ezaugarriek behartu egiten gaituzte sartzeko eta irtetzeko ordutegi desberdinak jartzera"**

**Ane Egidazu**  
(San Andres ikastetxeo ikasketa-buruak)



pazioa eskatu diogu Udalari, baina oraindik erantzunaren zain gaude”.

Osasuna eta arlo akademikoa zaintzeaz gain, arlo emozionalak duen garrantziaz galdetu diogu Aldatzeko zuzendariari, eta, hark dioenez, "hurrek ez dute askatasun osoa izango, baina bizikidetzat talde egonkorretan garrantzitsua izango da umeei euren tarreak ematea, ume izateko, jolasteko... Hori ezinbestekoa izango da”.

### Sarrerak eta irteerak era mailakatuan

Zenbait ikastetxetako sarre-  
rak eta irteerak modu maila-  
katuan egin beharko dira. San  
Andres ikastetxetaren kasuan  
“gure ikastetxearen ezaugarriek  
sartzeko eta irteteko ordutegi  
desberdinak jartzera behartzen  
gaituzte, familiak kointziditu ez  
dezaten. Badakigu eragozpen  
handia izango dela gurasoen-  
tzat, familia askok adin desber-  
dinetako seme-alabak dituzte-  
lako, baina moldatu beharko  
gara”, dio Anek. Sarreran ten-  
peratura hartuko zaie ikasleei  
eta eskuak garbitu beharko di-  
tuzte geletan sartu eta irteten  
diren bakoitzean.

Bestalde, ikastetxearen gar-  
biketaren auzia dago. Insta-  
lazioak eta espazio komunak

egunean hainbat aldiz desin-  
fektatu beharko dira. "Hez-  
kuntza Sailak maskarillak eta  
gelak emango dizkigu, besterik  
ez. Eta oraindik ez dakigu zein  
desinfektatzaile mota den ego-  
kiena instalazioak behar den  
moduan garbitzeko; oraindik  
erantzunaren zain gaude. Ho-  
rrekin lotuta, udalari garbike-  
ta-zerbitzua areagotzeko eskatu  
genion, eta oraingoz ez dakigu  
ezer”, dio Egidazuk.

### Ratioak

Ikasgeletako ratioak jaitea  
irakasleen eta sindikatuen es-  
kaera historikoetako bat da,  
azken hilabeteetan gero eta  
indar handiagoa hartzen ari  
dena (sindikatuaren kalkuluen  
arabera, 6.000 irakasle gehiago  
behar dira gutxienez). Ikasge-  
lako ikasle kopurua murrizteak  
osasan-arriskuak gutxitu ditza-

**“Ematen du dena  
jokatzen dela  
ikastetxean, baina  
nire ustez guztiz  
kontrakoa da”**

**Juankar Olaeta**  
(Aldatzeko zuzendaria)



Zalantzez eta ilusioz betetako motxilarekin ekingo zaio ikasturte berriari.

ke, baita haur eta gazteek ikas-  
tetxean jasotzen duten arreta  
hobetu ere, "baina horretarako  
baliabide gehiago jarri behar  
dira". Bai Aldatzen bai San An-  
dresen ratioak Euskal Herriko  
batezbestekotik gora daude, eta  
espazioarekin arazoak dituzte.  
"Egoera honi aurre egiteko  
izango diren laguntza gehigarri  
posibleen zain gaude", diote.  
Horrekin lotuta, jangela-zerbi-  
tzua eskainiko dute ikastetxeek,  
baina hor ere zalantzak sortzen  
zaizkie. "Jangelan maskarilla  
gabe egon beharko dute, eta  
konplikatu izango da distan-  
tziari eustea, azaldu digu Anek.

**Ikasleak gaixotzen badira...**  
Jaurlaritzak emandako zehaz-  
tepenen arabera, ikasle guz-  
tiek tenperatura hartu beharko

dute etxetik irten aurretik. 37°  
baino gehiagoko tenperatura  
duten ikasleek ezin izango dute  
ikastolara joan eta osasun-zen-  
trora joan beharko dute bertan  
finkatutako jarraibideak zo-  
rrotz betez. Ikastetxe barruan  
sintoma susmagarriak agertzen  
badira, "ikaslea isolatu egin  
beharko dugu. Familiari jaki-  
naraziko zaio. Semea edo alaba  
berehala jaso eta osasun-zen-  
tro batera joan beharko dira egoe-  
ra azter dezaten. Bueltatze-  
ko medikuaren txostena aurkeztu  
beharko dute", dio Anek.

Gauzak horrela, laster haur  
eta nerabeak eskolako eta la-  
gunarteko normaltasun ber-  
riari murgilduko dira, zalan-  
tzez betetako motxilekin, baina  
erronka berriei aurre egiteko  
ilusioarekin.

# zarelakogara

Izen-abizenak ..... Helbidea .....  
Tfnoa / emaila ..... NAN .....  
Jaiotze data ..... K/K zenbakia .....

### Bazkidetzat edo ekarpenak egiteko

NORK	EKARPENA	ERRENTAN ITZULKETA	BENETAKO KOSTUA
Urteak (16 urtetik beherakoak)	5 €	1,5 €	3,5 €
Ikasle, langabetu, jubilatuak	15 €	4,5 €	11,5 €
Langileak	45 €	13,5 €	31,5 €
Beste ekarpen batzuk	160 €	45 €	115 €

\* Urteko kopuruak dira

**...eta kitto!**  
**Euskara Elkarte**

**Urkizu 11**  
943 20 09 18 - 943 20 67 76  
elkartea@etakitto.eus

Marina Paulavetsek 3.000 kilometrotara du burua, bere jaioterrian, Belarusen (“nahiago dut Belarus deitu Bielorrusia baino”, esan digu). Herrialdeak une historikoa bizi du. 1994az geroztik presidente den Aliaksandr Lukaxenka kargutik kentzeko protestak egiten dihardute bertan eta handik iristen diren berriek kezkatutzen dute Marina. “Milaka lagun sartu dituzte preso protestengatik, manifestazio baketsuak izan arren errepresio handia egon da, ez dago adierazpen askatasunik... Nik inoiz ez dut Lukaxenkaren aldeko botoa eman, bera ez da nire presidentea”, aldarrikatzen du.

### Irla bat Europa erdian

Duen kokapenarengatik, Belarusek Errusia eta mendebaldeko Europa lotzen ditu. Horregatik, Sobietar Batasuna desegin eta 1991n estatu independente bezala bere bidea hasi zuenetik, potentzia handiek aldamenean eduki nahi izan dute. Belarus, ordea, irla bat izan da Europa erdian. Marinak prozesu guzti hori bizi izan du, Sobietar Batasunean jaio eta herrialde independentean hazi delako. “Sobietar Batasuneko beste herrialde ohi batzuekin alderatuz, guk ez genuen hain krisi ekonomiko larria izan”, Marinaren ustez. Azken urteotan, ordea, herrialdea atzean geratzen ari dela uste du, eboluziorik ez dagoela, eta COVID-19ak eragindako egoerak eta abuztuko hauteskundeak (“Lukaxenka ez zituen irabazi, baina emaitzak manipulatu ditu”, Marinarentzat) urak gainezka egiteko falta ziren tantak izan dira.

### Loreak eskolara

Eibartik sufrimenduz jarraitzen ditu Belaruseko berriak. Baina zer egiten du Marinak Eibarren? Orain dela hainbat urte Angel Gisasola eibartarra ezagutu zuen Belarusen. Harremana egin eta uda batean Eibar ezagutu zuen, “Sanjuanetaz maitemindu zen”, Angelen berbetan, eta bikotearen maitasun istorioak gaur

# Belarusera begira

EKHI BELAR



Protestetan nagusi diren keinuak egiten dituzte Angelek, Mariak eta Marinak.

egunera arte jarraitzen du. Maria da istorio horren fruitua, sei urteko alaba, errusiera eta euskara naturaltasun osoz erabiltzen dituen neska jatorra. Belarusen bizi izango

balitz, irailaren Iean Mariak, bere ikaskideek bezala, loreak eramango zituen eskolara irakasleei eskaintzeko, ikasturte hasierako ohiturak agintzen duen bezala. “Aurten, ordea,

ezberdina izan da. Irakasle askok hauteskundeetako iruzurrean parte hartu dute eta guraso batzuek erabaki dute lorerik ez eskaintzea”, Marinak dioenez, “eta ikasle ohi batzuek bere tituluak eskolara bueltatu dituzte, protesta gisa”.

### Irakasle eta polizia

Marinak ondo ezagutzen ditu eskola eta umeak. Minskeko unibertsitate pedagogikoan errusiar eta bielorrusiar filologia ikasketak egin ondoren, hainbat urtetan irakasle izan zen eta gero, prestakuntza gogorra jaso ondoren, polizia bezala egin zuen lan hurrekin zerkusia zuten gaitetan. “Polizia izatea gogorra da, demaseko inplikazioa eskatzen du, ia ez duzu atsedenik”, aitortzen digu. Hori bai, 45 urterekin erretiroa ematen dizute. Marinak 7 urte daramatza hemen bizitzen, beraz, erretiratu baino lehen etorri zen, baina oso pozik dago hartutako erabakiarekin. “Han lanetik kanpo ez nuen bizitzarik. Noiz edo noiz afaltzera edo zerbait hartzera joateko jantzirik ere ez nuen!”, diosku.

### Izaera bielorrusiarra

Filologoa izanik, erraztasuna du hizkuntzak ikasteko, baina Marina euskara edo gaztelera jakin barik etorri zen Eibarrera. “Eibarren bizi den errusiar batek lagundu zidan hizkuntza arlotik”, eta gaur egun bikain egiten du gaztekeraz. Euskaraz ere badakizki berba batzuk. “Aputu” berbaren esanahia ikasi dut Mariarekin”, dio barrez. Belarusen bielorrusieraz eta errusieraz egiten da, baina protestetan identitate bielorrusiarren aldeko aldarrikapenak egiten dira. “Adibidez, herrialdearen gaur egungo ikurrina (berdea eta gorria) Lukaxenka asmatu zuen, baina guk Bielorrusiako Herri Errepublikako banderaren alde egiten dugu, zuria-gorria-zuria”, dio Marinak. Argazkian duen kamiseta da izaera bielorrusiarren aldarri bat, ‘y’ itxura duen letra hori bielorrusiar alfabetoan bakarrik aurkitu daitekeelako.

“ Верым, можем, пераможам ”

“Sinesten dugu, ahal dugu, irabaziko dugu”





# Arrateko Ama, zaindari onena

Eibartar askorentzat Sanjuanak eta Sanandresak baino jai onartuagoak dira Arratekoak. Oporretatik bueltan ezin aproposagoak egiten zaizkigu orokorrean irailaren lehen asteburuko jai horiek, baina oraingoan kale egin digute, beste askok bezala, eta ezin izango ditugu gustatuko litzaigukeen moduan ospatu. Hori aprobetxatuta, orrialde hauetan gure Zaindari Onenaren inguruko berriak errepasatu ditugu, badaezpada ere ahaztu ez ditzagun.

**A**rrate inguruan badaude hainbat ipuin edo kon-daira, eliza bera zelan eraiki zen kontatzen duen istorioa esaterako. Esaten dutenez, Amabirjina artzain bati agertu zitzaion, berari eliza eraikitzeko eskatzen. Artzainak beste base-rritarrei kontatu zien gertatu-takoa eta, denon artean, eliza Azitainen egitea erabaki zuten. Artzainak, baina, Arraten egin nahi zuen eliza; besteek, ostera, nahiago zuten Azitainen egitea eta, gehiago zirenez, beharrari ekin zioten Azitainen. Baina, egunez beharrerako erabiltzen ziren tresnak, gauez bateren batek Arrateraino igotzen zituen. Sinesgabeenak Zelai eta Pagoaga ziren eta honako erabakia hartu zuten: tresna guztiak atzera ere Azitainera jaitsi eta gauez zelatan geratu. Zelatari zeudela, zarata entzutean batek ate-morroilo zulotik eta besteak zirrikitutik begira hasi zirenean, neskatila ilegorri polit bat ikusi zuten, gurdia apain batera tresnak eramaten. Eskuan

akuilua hartuta, bie begiratu eta honakoa esan omen zien:

Aida, Txuri ta Belio.  
Zelataka dagoenari  
begiak urten bekio.  
Berriz, makurka dagoana  
oker gelditu beio.

Eta hodei argitsu batean joan zen gurdia, idiek tirata, neskatila aingeruarekin. Pagoaga begi barik gelditu zen eta Zelai konkor, eta baserri bietan hainbat gizaldietan haien oinerdekoak ere begibakar eta konkordunak izan ei dira. Horrela jasota dator Juan San Martin euskaltzain eibartarraren “Antzinako Eibar” liburuan, Arrateri eskainitako ataletan.

## Arratetikuak

Eibarko euskeran ere badu zerikusia Arratek, batzuen iritziz behintzat. Esate baterako, Toribio Etxebarriak “Arratetikuak” berba erabili zuen bere lan marduletan. Izan ere, beste toki batzuetan umeak Parisetik etortzen direla esaten du-

## 1498. urteko dokumentu batean aipatzen da lehenengo aldiz Arrateko ermita

ten moduan, Eibarren umeak Arratetik etortzen dira, edo hori da umei esaten zaiena. Gero, umeak elizan sartzean, gurasoei galdetzen zieten ea non gordetzen ziren umeak eta gurasoek sabaiaren erdian zintzilik dagoen itsasontzia seinatzen zuten. Hortik zabaldu zen umeak itsasotik heltzen ziren ustea. Gainera, sasoi batean gure herrian ume bat gaixotzen zenean Amabirjina ikustera eramaten zuten, harek sendatzeko. Ezkon-laguna topatzeko bideak ere badu zerikusia zuzen-

na Arraterekin: hango mendigailurrean dagoen harrizko kurutzeari Kredoaren errezatzen hiru buelta ematea baina gauza hoberik ez ei dago.

## Datu zaharrenak

1442. urteko abuztuan, Mendaroko neska txiki bat behiak zaintzen zegoela, harri pila batean Arrateko Amaren irudia aurkitu zuen, orain Arraten dagoen irudia. Abadeari parte eman eta abenduaren 8an jarri zuten Amabirjinaren eguna. Horrek datuok Erroman azaldutako paperei zor dizkiegu. Abade frantziskotar batzuk eman zuten horren berri, nahiz eta kallean betidanik entzun dugun ipuinean Amabirjina “Zelai” baserrikoari agertu zitzaiola.

Noizkoa den seguru esaterik ez dago, baina Eibarko herriari buruzko hasiera-hasierako aguriek Arrateko ermita aipatzen dute. 1498. urteko dokumentu batean, “egurtzak” (herriko basoetan egurra hartzeko eskubidea) zirela-eta, Arrate izenda-



Arrateko Ama oso maitatua izan da eibartarren artean. Zer esanik ez auzotarren artean.

## Arrateko Ama herrira jaitsi zuten 1913, 1922, 1929, 1954 eta, azken aldiz, 1999. urtean

tuta dator. Adituek diotenez, askoz lehenagokoa dugu. Orduan Santiagorako bidea egiten zuten erromesak Arraten geratzen ziren, seroren kargu zegoen ostatuan.

### Amabirjinaren eguna Aita Santuak aldatu zuen

Arrate eguna antzina abenduaren 8an izaten zen. 1573. urtean Pio IV.ak irailaren 7ra aurreratzeko baimena eman zuen. Honakoa esan zuen: Arrateko Amabirjinaren eliza mendian dagoenez, eta abenduan, Sortze Garbiaren egunean, hotz handia eta elurteak izaten direnez, Kofradiari baimena ematen diot Arrateko eguna irailaren 7ra aurreratzeko. Eta Amabirjina Sortze Garbian meza emateko baldintza jarri zuen.

Aita Santuaren "brevea" edo baimena galduta dago. Itxura denez, 1794. urteko suteetan



1954an jaitsi zuten Arrateko Amabirjina laugarrenez Arratetik. Irudian, Urkizuko parkean eibartarrez inguratuta.

galduta. Agiriek dioskuenez, Jose Maria Etxezarreta abadeak latinetik euskerara eta gaztele-rara itzuli zuen Aita Santuaren esana. Erdarazkoa Mugicaren Monografian dator, baina euskarazkoaren berririk ez dugu.

### 1754: Eskandalua Arraten

1754ko abuztuan Don Pedro Cano y Mucientes korrejido-reak "Arrateko santutegian gertatzen diren eskandaluen kontra" zeritzon Autoa argitaratu zuen. Jaun prestu hori ezaguna egingo zaio bati baino gehiagori, bera izan baitzen urte horretan udal hauteskundeetarako Ordenantzak euskerara itzuliarazi zituen: Jaunac, en resumidas cuentas, onec esan gura dabena da hasten ziren ordenantza famatuak.

Abuztu horretako Autora bueltatuta, ikusi dezagun zein eskandalu ziren baztertu beharreko horiek: "Urtero iraillaren zaspichan emoten jaco asieria Arrateko Ama Birgiñaren ermitaren devociñoari (...) seiñaren bides inguru ta bastar guztichetaco gente saldoac etorten baitira ta orrei danei serbizeco denda ta barraca ugari eraikitzen dira, nun anoia edo janaricha ez ece ardaa bere naro egotten baita, ta nun bata sein bestia oparo jan da edaten diran".

Korrejidore jauna ez zen zurrut kontuen laguna, baina gaitzago zeritzon "danza festejo quescagarrichari", zergatik eze "diversiñoac eta libertinajiac engaiñazen dittuenes, gau gusticia celaichan yragatten dabe esparcidutta o sacabanatutta".

Gainera, batzuk ilunpeko zirikin ez ziren asetzen nonbait, zeren, eliza barruan gizonak eta emakumeak bereizita egon arren, korrejidoreak aurrerago dioenez, "... morroi bat erropac baiño lenago lossa eranzi ta emacumezco soiñecua janzitta andrartian sartu zan astoramenduba ta anabasa ta exenplu charra sorturic". Larregikeria horiek sustarretik mozte alde-ra, korrejidoreak zurrin jokatu zuen: "Amar ducaten multia ta illabeteco carzela".

### Arrateko Ama bost aldiz izan da Eibarren

Bostak ere XX. mendean. Lehenengo jaitsiera 1913an izan zen, "parrokiara jaitsi eta kanpaina-meza egiteko Gasteitik lizentzia jaso ondoren". Handik bederatzi urtera, 1922an, jaitsi zuten bigarren aldiz eta baita bederatzirena eskaini ere parrokiaren. Hirugarrenez 1929an izan zen hiri barruan eta, Gasteizko apezpikuaren bisita aprobetxatuz, koroatze kanonikoa egin zuten azaroaren 3an. Eugenio Urroz zen orduan San Andreseko parrokoa. Eibarrera egindako laugarren jaitsiera 1954an egin zen, koroatzearen zilarrezko ezteiak ospatu eta Andre Mariaren Urte Santua zela baliatuz. Azaroan etorri eta abenduaren 12ra arte egon zen, egun horretan "agur bikaina lagun izanik" santutegira bueltatzeko. Eta bosgarren eta azkena 1999. urtean izan zen, orduko hartan apirilaren 24tik irailaren 7ra arte, denbora guzti horretan San Andres parrokiako tronon. Orduko bederatzirenean herriko zortzi parrokiek, txandaka, presiditu zituzten ospakizunetako bakoitza. Arrate Egunaren bezperan, bestalde, Arratera bueltatu aurretik San Andres Egoitzan eta Aginagako elizan egin zituen geldidunak. Arratsaldeko 16:00etan atera zuten parrokiatik, 17:00etan Aginagan zegoen eta, handik ordubetera, 18:00etan, Arratera heldu ziren. Han Krabelin hoteletik eramane zuten anderoek santutegira ■



• **Bi prozesio urtero**

Arrateko santutegian urte osoa ematen duen Amabirjina elizatik kanpora prozesioan ikusteko aukera oso egun zehatzetan baino ez da izaten: lehena, jakina, Arrate egunean, meza nagusia amaitu eta jarraian gurutzeraino egiten duten kalejiran; bigarrena hurrengo domekan izaten da, kofradiaren eguneko prozesioan. Horrelakoetan Amabirjina batetik bestera eramaten duten anderoak Arrateko Kofradiako kideak dira: Arraten eta inguruan bizi diren baserritarrek osatutako kofradia da eta bertako kideek Amabirjina bera zein bere inguruko beste kontu guztiak zaintzen arduratzen dira: Amabirjina prozesioan atera baino lehen jantzi egiten dute, apaindu, diamantezko koroa ipini, kandelak, lazoak eta beselako guztiak ipinita apaindu... 2012tik aurrera andero gazteenek bigarren prozesioa egiten dute.



**Arrateko Hiru Pausuen ibilbideari hasiera ematen dion irudia. Aldamenean, Simon Aldazabal atleta, marka handiaren jabea. Behean, Arrateko probalekua.**



• **Simon Aldazabal Saria 1996tik**

Aurten 25. edizioa bete behar zuen saria Simon Aldazabal atletaren omenez jokatzeko da. 1918an Markinan jaiotako Simon oso ezaguna da Eibarko kirolzaleen artean eta Eibarko Klub Deportiboan eman zituen bere urterik onenak atleta moduan. Pixka bat berandu hasi bazen ere -29 urterekin "deskubridu" zuelako Arrateko Don Pedrok, bere alde hamar hogereko ipini zituenean Eskailu pelotariaren aurkako proban-, Elgoibako Mugerza krosean ere irabazle izandakoa dugu Simon. Eskailuri Arratetik Ixura irabazi bazion ere, baditu Aldazabalek beste marka batzuk oraindik hautsi ez direnak, Arratetik Agiñaspi tabernarainokoa tartean, zortzi minutu eta erdiko denborarekin. Bere omenez orain arte jokaturako 24 edizioetako bakoitzean Eibarko Klub Deportiboak lagun bat omendu du urtero.

• **Arratera hiru pausotik joateko ibilbidea**

"Arrateko pausoak" izeneko ibilbidearen hasiera Azitaingo elizaren eta Untzuetarren jauregiaren tartean dagoen rotandan dago, zeramika lan batez adierazita. Toki berean Eltzartzako zubi zahar berreraikia eta Apalategi errotaren harriak ere ikusiko ditugu, gaur egun galduta edo ahaztuta dauden erroten orogarrari: Apalategi, Ezkaregi, Azitain, Barrenetxe... beste garai bateko ohituen isla. Bertatik abiatuta, Eltzartza baserri ingurutik gora, berritutako hiru Santutxoetan gelditzeko aukera dago:

- Lehenengoa Sumendixa baserriaren inguruan dago. Bertan Jose Antonio Azpilikueta artista eibartarraren lana ikusi daiteje, kondaira zaharra azalduz.
- Bigarren pausoa Lezeta Abeletxe inguruan dago, eta aterpe horretan Esther Galarzaren arte-lana ikusi daiteke: zeramikan egindako lana da, esmaltez apaindua, eta Arrateko Amaren irudia eta abestia, "Arrateko Ama" ezaguna, erakusten ditu.
- Hirugarrena aurretik 10 minutu ingurura dago, Zesterokuan. Iturria baino metro batzuk gorago. XVII. gizaaldiko grabatu baten erreprodukzioa du apaingarri. Jule Egañak egindako lana da, eta baserri zein itsas munduko irudiak biltzen ditu. Bidea jarraituz, 10 bat minututan Arratera helduko gara.

• **1945. urte inguruko probalekua**

Florentino Areta alkate zela egin zen Arrateko zelaian dagoen probalekua, 1945. urtearen bueltan. Bertako harrien pisuak, bestalde, honakoak dira: 2.020 kilo pisatzen du handiak (idi-dematan erabiltzen denak) eta 750 txikiak



**BEGOÑA ARANGUREN ODRIOZOLA**

2020ko abuztuaren 29an hil zen

*"Izarren hautsa egun batean bilakatu zen bizigai"*



**Martin, Leire, Aitor(!) eta Banjirentzat... MAITASUNA**

EIBARKO SORTU



## Arrateko jaien egarri

Irailari lasai ekingo diote Arrateko jatetxe biek, Tiro Pitxoiak eta Kantabriak. Milaka lagunen bisita jaso ohi dute Arrate egunean, baina berriz ere errepikatuko ez dugun egoera medio, beste jaiegun edo domeka bat bezala pasako dute Arrateko egun handia. Uda, behintzat, ondo pasa dute lanean, jende asko igo delako han izaten den giro paregabeaz gozatzeko gogoz.

**T**iro Pitxoiak, bista politak eskaintzeaz gain, leku handia du distantzia sozialari eutsiz jaten edo edaten momentu ona pasatzeko. “Ondo konpondu gara segurtasun neurriei dagokionez”, esan digute.

Urtean tirada garrantzitsu bat izan ohi da abuztuan Tiro Pitxoian, Espainiako Txapelketa, eta jende ugari jaso du aurten ere. Jende asko bildu bada ere, jatetxeko arduradunek diote ondo moldatu direla segurtasun neurriei eusteko orduan, jendeak ondo errespetatu dituelako.

Tirada garrantzitsu horrek jendea erakarri arren, abuztuan ohikoa baino jende gutxiago joan da Tiro Pitxoira. “Konfinamenduaren ondoren oso ondo hasi ginen, jendeak hain zuzen hartzeko beharra zuelako, baina gero jaitsiera egon da”, aitortu digute.

Arrate Eguna oso egun garrantzitsua izaten da Tiro Pi-

txoiarentzat eta kaltegarria izango da ez ospatzea, “baina segurtasuna edozein gauzaren gainetik dago”, euren ustez. Horrela, beste egun normal bat bezala biziko dituzte aurten Arrateko Jaiak eta momentuz ez dituzte normalean baino erreserba eskaera gehiago jaso.

Egongo dira behar den bezala ospatuko ahal izango diren Arrateko Jai gehiago eta egunez egun aurrera egiteko gogoz daude Tiro Pitxoian. Gainera, normalean azaroan jatetxea itxi arren, aurten zabalik egongo da.

### Abuztu ona Kantabrian

Kantabria jatetxea zabalik egongo da martitzenean (“edozein jaiegunetan bezala”, esan digutenez), baina normala ikusten dute Arrateko jaiak bertan behera lagatzea, egoerak hala eskatzen duelako. Taberna zabalik egongo da, baina orain arte egin bezala, arauak zorrotz jarraituko dituzte. Gainera, “jendeak neurriak ondo

### Tiro Pitxoi eta Kantabria jatetxeek normala ikusten dute Arrateko jairik ez ospatzea



errespetatzen ditu”, diote Kantabriakoek.

Kantabria zabalik egon da abuztuan zehar eta pozik daude jaso duten jendetzarekin. “Lan asko izan dugu”, esan digutenez. “Kanpoko jende asko etorri da, katalanak batez ere, eta oso jatorrak izan dira”.

Ospakizun asko jasotzen dituen jatetxea da Kantabria, baina ezarritako arauak mugatu egin dute ospakizun oro. Jau-nartzeak atzeratu egin zituzten eta orain dira egitekoak, eta ezkontza asko bertan behera geratu dira. Beste ezkontide batzuek, ordea, aurrera egin dute eta ospakizun txikiak egitea erabaki dute. Hori bai, musika barik, barra librerik ez... baina zerbait behintzat. “Asteburuan ezkontza txiki bat izango dugu, adibidez”, Kantabriakoen berbetan.

Aldaketa sasoi bizi dugu eta Kantabriakoak egunez egun moldatzen dira egoera berrira zentzuz eta, beti bezala, adie-tasunez. ■





## Aurreko urteetan bezala, obrak izan dira jaun eta jabe herriko kaleetan aurtengo udan ere

Koronabirusaren pandemia gurera ailegatu zenetik denon bizi-moduak nola aldatu diren ikusita, aurtengo uda berezia izatea espero genuen gehienok. Egia da abuztuaren beste urte batzuetan baino jende gehiago geratu dela Eibarren, baina hori albo batera lagaz gero, urteroko martxari jarraituta, herriko toki ezberdinetan konponketa lanak egiteko aprobetxatu dute abuztua aurtengoan. Abuztuaren lehen egunean hasi zituzten San Juan kalea kanalizatzeko lanak eta bi egun geroago, Errebal, San Agustin eta Julian Etxeberria kaleetan espaloiak berritzeari ekin zioten. Hasieran aurreikusita zegoena baino egun batzuk geroago, datorren asterako, amaituko dituzte lan horiek eta, bien bitartean, inguru horretako trafikoari eragiten dioten hainbat aldaketa egin dituzte. Horrekin batera, hainbat aparkaleku kendu behar izan dituzte, baina oreka bila edo, Bittor Sarasketa kalean 25 bat automobilentzat aparkalekua prestatu du Udalak. Bestalde, Azitain eta Maltzaga batuko dituen bidegorria egiteko beharrez jarraitzen dute eta, agintarien berbetan, abendurako amaituta egotea espero dute. Eta, aipatutako horiez gain, herriko hainbat kale asfaltatzeko lanean aritu dira.



## ARRATE LIZARRITURRI GOROSTEGI



*"Beti gogoratuko zaitugu  
bestei kutsatzen zenigun  
alaitasun horrekin"*

JOSKETA TALDEKO NESKAK





## Abuztuan hustu egiten den herria

Badoa uda. Eguzkia indarra galtzen ari da, hostoak horitu egingo dira laster eta beroak epeltasunari emango dio lekukoa, hotza iritsi aurretik. Urtero gertatzen da horrela, urtarok ez dute koronabirusik ezagutzen. Urtarok bizi ditugunok, guk geuk, ordea, bai. Uda momentu ahaztezinak bizitzeko sasoa izan ohi da eta aurtengoa inork ez du ahaztuko, ziur. Hainbat izan dira abuztua herrian pasa duten eibartarrak. “Herriaren zaindaria”, sarritan esan izan den bezala. Eurak izan dira uda eibartarraren lekuko eta euren bizipenak jaso ditugu, abuztua beste bazter batzuetan pasa dutenek hilabetearen kronika jasotzeko. Badoa uda, baina ez da agur bat, datorren urtean itzuliko da. Beti itzultzen da.



UNZAGA PLAZA hotela

**“Hotelaren okupazioa iaz baino %95 baxuagoa izan da”**

### Nolako abuztua izan duzue hotelean?

Hotelaren okupazioa iaz baino %95 baxuagoa izan da; beraz, pentsa. Etsigarria da. Martxotik abendura arte hotela %100 betetzea aurreikusten genuen, beti bezala, baina errealitatea beste bat izan da. Datorren urtera begira aurreikuspena ona da, gauzak aldatzen badira behintzat, bestela berriz joango gara pikutara. Orain egunez egun joan behar gara, ezin da epe luzeko aurreikuspenik egin.

### Nolako neurriak hartu behar izan dituzue hotelean COVID-19aren ondorioz?

Hotel guztiek hartu behar izan dituzten neurri guztiak hartu

ditugu, langileak prestatu egin dira eta hotela %100ean dago zabalik, baina ez dago bezerorik. Jendeak bidaiatzeko beldurra du, normala denez.

### Nola begiratzen diozue etorkizunari?

Inoiz baino indar gehiagorekin egingo dugu aurrera. 2012an hotela hartu genuenean arratoiak ere ez ziren etortzen eta pentsa zazpi urtetan hotela zer bihurtu den. Berdin egingo dugu orain. COVID-19a pasako da eta guk hemen jarraituko dugu, indartsu. Aurrera egingo dugu, kosta ahala kosta. Egoera honen aurrean ez gara kikilduko eta ez dugu atzera egingo.





<<< ODEI JAINAGA • Espainiako marka berria jabalina jaurtiketan >>>

# “Niretzat ez da ezustekoa izan; 90 metrora heltzeko bidean martxa onean noala uste dut”

Gure herriko jabalina jaurtitzailak lehen ere izan zuen Espainiako marka berreskuratu du, pare bat urtetan izandako minen ondorioei aurre eginez. Leongo Goi Errendimenduko Zentrotik erantzun digu eta, betiko lez, animoso ikusten du etorkizuna. Bi-hiru astetako oporrak izango ditu zain Espainiako txapelketaren ondoren.

## Esperotako emaitzak izan dira lortu dituzun biak?

Ez da ezustekorik izan. Horren bila nengil, aurreko asteetan ere lanean ondo genbiltzalako. Zortea izan da lehiaketa horietan ere nituen asmoak eta lortutako jaurtiketak bat etortzea. Orain falta zaidana da hementik aurrera 80 metroren bueltan finkatzea nire jaurtiketan, hortik abiatuta aurrerantzean eskalatzen joateko.

## Dena dela, urteko sasoi onean zaudela esango zenuke?

Aurtengo onenean nago, bai. Puntu-puntu. Baina mugan ere bai, aldi berean. Gorputza gehiago behartuz gero, min hartzeko arriskua ere hor dagoelako. Lesioak saihestea dut orain lehenetan. Une hauetan hauskor nago, karamelu-puntu esaten den moduan.

## Epe motzeko erronkarik gabe orduan? Edo bai?

Badut erronkarik oraindik, ez pentsa. Hurrengo asteburuan, hilaren 12an eta 13an, Espainiako txapelketak jokatuko dira eta hor izango naiz, nire onena emateko prest, betiko moduan. Pena ere badut beste lehiaketa batean ezingo dudalako parte hartu: federazioen arteko genuen egutegian, baina Euskadiko selekzioa izango da hor parte hartuko ez duen bakarra. Kirolarioi galdetu barik hartu dute erabakia eta hainbati faena ederra egin digute. Jokatzekeo geratzen zaidan Es-





painiako horretan, bestalde, irabaztera irtengo naiz. Baina ez naiz horrekin bakarrik konformatzen: tituluaz gain, marka ere bilatzen dut, gauza biak. Aurkariak ez dut uste 80 metrotik gora jaurtiko dutenik, ezinezkoa iruditzen zait.

**Espainiako marka laugarren jaurtiketan lortu zenuen, Euskadikoan eskuratutako zure bigarren marka lehenengoan. Badu eraginik zugar hasierakoa edo amaierakoa izateak?**

Ondo hasteari bai ikusten diodala abantaila, batez ere txapelketen kasuan. Orain arte amaitze aldera, azken jaurtiketetan, lortu izan ditut emaitza onenak, baina aurreko asteburuan, akaso erlaxatuegi irten nintzelako, atera zitzaidan jaurtiketa hori.

**Euria ere gogotik bota zuen jaurtitzaren hasi aurretik. Zein eguraldi duzu gustokoen?**

Euriaren aldekoa ez naiz, jakina! Nahiago dut, behin entrenatzen hasita, hotzik eta euririk ez bada: belarretan jarrita arkupea tan sartuta baino erosoago nago betik. Euriak, gainera, badu beste eraginik ere: jabalinaren helduleku edo kirtena busti daiteke, epaileek ere jasotzen dutenean zelan tratatzen duten...

**Lesiotik guztiz sendatuta zaudela esango zenuke?**

Bai, pozik nago, eta itxaropentsu gainera... berriro min hartzeko beldur horrek hor jarrartzaren badu ere. Egia da nohizbehinka, berotzeko orduan, zeozer nabaritzen dudala oraindik ere. Argi dago eskumako besoak eta ezkerrekoak



Iaz arte Jainagak Eibarko Klub Deportiboa ordezkatzen zuen.

**“Orain nago urteko sasoi onenean, baina minik ez hartzen ahalegindu behar naiz”**

ez dutela tratatu bera jaso, hori bai igartzten dela.

**Azken aldian izandako progresioan, nondik jo duzu gehiago: teknikaren edo indarraren aldetik? Zerk du garrantzi gehien zure modalitatean?**

Gauza bietan hobetzeko ahalegin berezia egin dugu. Teknikan, esaterako, hobetu egin dut besoa ateratzeko orduan; arlo horretan asko galdu nuen min hartu nuenetik, blokeoa sotzen zitzaidalako, akaso beldurrarengatik. Dena dela, erdi eta erdi, %50eko pisua emango nieke biei azken emaitzan. Hori

**“Badut Tokioko Olinpiadetan izateko asmoa; erregularra izatea eskatuko dit horrek”**

bai, indarra lortzea errazagoa izan daiteke: gimnasioan landu daiteke, pesak-eta baliatuz. Teknika perfektua eskuratzeke beste hainbat ezaugarriekin jabetu behar zara eta asimilatzen jakin.

**Urteko 14. markaren jabe zara eta Europako 11.a zara. Horregatik, Olinpiadetara joateko gutxienezko 85 metroan ezartzea ez da larregizkoa?**

Rio de Janeiroko 82 metroan ipini zuten minimoa eta, orduan, IAAF Nazioarteko Atletismo Federazioak ikusgarritasunaren alde jo du, sailkapena

puntu bidez osatzeko. Horrela, txapelketen mailaren araberako puntuak banatzen dira eta azken sailkapeneko hamabi onenak joango lirateke. Jokoetara. AEB-etan ez zeuden sistema horrekin ados eta, azkenean, minimak eskatu dituzte. Puntakoak ez direnak puntuazioz lortuko dute txartela, bakoitzaren bost txapelketa onenen batukariarekin. Horregatik, badut itxaropena datorren urteko Tokioko Olinpiadetan izateko. 80-81 metroren bueltan ibili beharko banaiz ere proba bakoitzean.

**Non daude munduko jabalina jaurtitzailerik onenak?**

Alemaniarak dira, batez ere, eta Finlandiarak ere izan du tradizioa. Europan kultura handia dago modalitate horretan.

**Zenbatero entrenatzen duzu? Zenbat ordu egunero?**

Egunero jarduten dut, domekan jai hartuta. Gorputzari komeni zaio atsedean hori; behin baino gehiagotan, domekan lehiaketa izan dudanean, hurrengo astelehenean mina izan dut. Orain egunero hiru orduarekin nahikoa dut, neguan luzeago jardun nuelako. Lehenago egindako lan-karga horri eutsi eta fresko egon behar naiz orain.

**Zenbat entrenatzaile izan dituzu ibilbide honetan?**

Inma Urkiola izan zen lehena eta orain Jose Antonio Garcia Feijooarekin nabil, Eibartik irten nintzenetik. Realarekin, bestalde, ikasturte hau egin dut. Aurretik beti Eibarko Klub Deportiboarekin jardun izan dut.



## FERMIN ALZIBAR MENDOZA

2020ko uztailaren 18an hil zen

*“Familia eta lagunerik, gure elkartasun beroena adierazten diegu”*

**EZ ADIORIKI  
Eibarko Sortu**



>>> Mendilibarrek zuzentzen duen taldeak Ipuruan hasiko du 1. Mailan jokatu duen zazpi-garren denboraldia. Datorren asteko asteburuan abiatuko da sasoi berria eta dagoeneko zehaztu da jardunaldi horretako ordutegia; horrela, Eibarrek zapatu horretan hartuko du Galiziako taldea, arratsaldeko 16:00etan hasiko den partiduan. Hurrengo jardunaldian Eibarrek Villarrealen zelaia bisitatuko du. Euskal derbiei dagokienez, gure herriko taldeak Athletic hartuko du Ipuruan maila horretako lehen lehian.

Denboraldiaurrean orain arte jokatu duen partiduetan, bestalde, Eibarrek Mirandes garaitu zuen Atxabalpen 3-1, Benito, Gonzalez eta Kikerren golei esker eta, jarraian, Ma-

## Eibarrek Celta hartuko du hilaren 12an arratsaldez liga hasteko partiduan



Damian Kadzior da denboraldi berriari begira lehenengo fitxaketa.

drilera egindako irtenaldian, Rayori irabazi zion 0-1, Eñaut Mendiaren golarekin, eta hurrengo egunean 3-1 galdu zuen azken denboraldian 2. Mailara jaitsi den Leganesekin.

Eibarko entrenatzaileak taldean sei-zazpi fitxaketa behar dituela esan badu ere, orain arte jokalaria bakarra etorri da gurera: Damian Kadzior, 28 urteko poloniarra. Zagrebeko Dinamotik dator, ezker hegaleko internazionala da eta hiru denboraldirako fitxatu du.

Eibar FT-k 48 milioitan izango du salario-muga, azken denboraldian izandako kopuru berean. 1. Mailara igo zuenean 12 milioikoa zen muga hori, hurrengokoa 19 milioikoa eta, urtez-urte, goraka joan da kopurua oraingo kopurura iristeko.

## Eibar Rugby Taldea kanpoko jokalariekin indartuko da hurrengo denboraldiari begira

>>> Emakumezkoen taldea gorengo mailara igo berria izanda, taldea indartzea ohikoa den moduan, aurtengizonezkoen taldeak ere azken denboraldietan izandako estatusunei ihes egin nahi die eta, horretarako, zer hoberik taldea kanpoko jokalariekin indartzea baino. Horrela, Ohorezko B Mailan eragin handia izan ditzaketen bi jokalaria ekarri dituzte eibartarrek. Josh Hodson arrierra Erresuma Batukoa da, 1'90 neurtzen du eta 98 kilo pisatzen ditu; jokalaria azkarra eta indartsua da. Gradyb Bown kanadiarra da bigarren fitxaketa:

joko-zabaltzailea da bera eta, aurretik, Victoria Unibertsitatean eta Kanadako talde gorenean jokatu du. Errugbian dagoen posturik garrantzitsuenariko bat betetzeko asmoz dator, "bere lidergoa eta joko trebezia erakusteko asmoz".

Denboraldi honetan Ohorezko Mailan jokatu duen emakumezkoen taldeak, bestalde, azken fitxaketa bat ere egin du. Beatriz Sanjurjo da bera, 30 urteko madrildarra: 1'64 neurtzen eta 76 kilo pisatzen du. Lehen lerroan jokatzeko du eta azken denboraldietan Ohorezko Mailan jokatu du. Taldeak, bestal-



Josh Hodson arrierra Erresuma Batukoa da, jokalaria azkarra eta indartsua.

de, entrenamendu saioekin jarraitzen du, denboraldia noiz

hasiko den oraindik zehaztu barik dagoen arren.



### JON SOBRO YEREGUI

(2020ko abuztuaren 2an hil zen)

"Gure gogoetak zurekin bidaiatzen dute"

ETXEKOAK







## Aurpegi ezagunak Eibar Eskubaloia taldearen fitxaketen artean

>>> Ander Ballesteros eta Lander Casado gure herriko eskubaloia klubeko lehen taldera bueltatuko dira denboraldi berriari ekiteko. Aurrendenboraldia abuztuaren 24an hasi zuten Fernando Fernandez mutilek eta Euskal Kopa ere ate joka izan dezakete. Azken egunetan izandako berritzez gain, jubenil eta bigarren taldeko jokalariek izan ditu entrenatzaileak bere eskura taldeari itxura

ematen jarraitzeko helburuarekin. Hasieran aipatutako jokalaririk biak hiru urtez izan ziren lehen ere Fernandez aginduetara. Ballesteros zilarrezko mailatik dator, Amenabar Zarautz taldeetik hain zuzen ere. Casado, bestalde, Ordiziatik dator eta, iaz jokatu gabe egon bazen ere, itxaropentsu iristen da taldera; aurretik Tolosan ere pare bat denboraldi egindakoa du gabea.



## Avia Eibarrek 2. Probintzian jokatu du denboraldi berria

>>> Denboraldia joan, denboraldia etorri, azken urteotan helburu izan duena lortu du, azkenik, Avia Eibar Saskibaloia taldeak. Badira hainbat urte, igoera lortzeko zorian izanda, azken uneetan helburuak ihes egin diola Eibarko taldeari: izan azken orduko saskiratzea jaso duela, azken kanasta bat lortzeko bidean geratu dela... Baina oraingoan, bai, eibartarrek 2. Maila Probintzian geratu den hutsunea beteko dute. Horrek ahalegin berezia eskatuko dio azken denboraldiotan 3. Mailan jardun duen taldeari, mailari eusteko bakarrik nahiko lan izango baitu.

Bestalde, Avia Eibar Saskibaloia Getariako Keta Sharks klubarekin akordioa hitzartu zuen opor aurretik getariarrek bere kirol egituran integratu eta, horrela, hurrengo denboraldiko liga autonomikoan lehiatzeko aukera izateko. Egindako mugimendu hori onuragarria izango da klub bientzat: eibartarrek bere taldea Ketako jokalariekin indartuz autonomia mailako partiduak ekarriko ditu Ipurua kiroldegira; eta kostaldeko, bestalde, igoera lortzeko aukera zabaltzen zaie Eibarko jokalariei esker, harrobiko katea izatea ezinbestekoa delako.

**FUNEUSKADI**  
Grupo Alstia

**FUNERARIA MUGICA**  
Funeraria

**TANATORIO EIBAR**

**TANATORIO CREMATORIO ELGOIBAR**

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951  
[www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao  
Portugaleta · Santurtzi · Basauri · Galdakao

**GATE**  
English School

Urtzaile, 8 behea  
20600 EIBAR  
605 716 717

Lorea Hernández Arizaga  
Ingeles Filologian Lizentziatua

**Kili Kili**

☎ **943 20 24 01** Egunero

- Gosariak 07.00etan

- Plater konbinatuak zabaltzen

- Eguneko menua dugu



## Mundu berri baten sorrera

Tailerra, jolasak, estudioa, barra, ekitaldiak, bazkariak... zer ez daiteke egin ba Adarabarren? Mundu berri bat sortu da Eulogio Garate kalean. Esperimentazio-gune bat. Familia eta umeentzako espazio berezia. Hilaren 7an irekiko ditu ateak eta beso zabalik jaso ditu bertaratuko direnak eta euren ideia eta proposamen berriak. Izan ere, elkarren artean osatu nahi dute mundu berria.

**O**ihana Lasuen eta Gorka Litago daude Adarabar proiektuaren atzean. “2014an gure alaba jaio zen eta, hazten zihoan neurrian konturatu ginen hemen ez zegoela behar bezalako tokirik haurrek eta helduek elkarrekin gozatzeko”, esan digute. Beraz, eurek sortu dute.

Urteak daramatzate ideia horrekin buruan eta 2018an On Ekin saria jaso zuten. Orain, bi urte geroago, errealitate bihurtu da. Gogotsu daude Adarabarren ateak zabaltzeko eta herriari eu-

ren ideia berritzailea azaltzeko. “Hasieran, agian, jendea iruditatu egingo zaio Adarabar zer den irudikatzea”, diote. Beraz, hara joan edo infoadarabar@gmail.com helbidera idaztea besterik ez dago informazioa jasotzeko.

Adarabarren mota askotako jarduerak egin ahalko dira: ikastaroak, tailerrak, ekitaldiak (bazkariak, merkadilloak...) eta, gainera, alokatuz gero, espazioa modu pribatuan erabiltzeko aukera izango da.

Bestetik, zerbitzu anitzez go-



zatzeko aukera izango da: barra (“gauza osasuntsuen alde egiten dugu”), estudioa (“diseinua, arkitektura, eszenografia... lantzeko”), jolasteko gunea (“espazio librea proposatzen dugu, beheko solairuan erritmo lasaigoarekin eta goian gune dinamikoagoarekin”) eta denda (kosmetika eta higiene produktua; ehungintza; dekorazioa; liburu eta aldizkariak; eta jostailuak salduko ditugu”).

Jendearen eskaeretara moldatuko dira. Mundu berria jarri dute eibartarron eskura. ■



### CARMEN ARETA LEZETA (2020-VIII-23)

*“Zu joan zara, baina zureganako gure maitasuna ez da sekula joango, beti bihotzean eramango zaitugu. Ezin izango ditugu zure ilusioa, indarra eta bizipoza ahaztu”*

BASURTO ETXEBERRIA FAMILIAK







## Ignazio Zuloagaren koadroen kopiak ipiniko dituzte ikusgai dendetako erakusleihoetan

Aurten betetzen dira 150 urte Ignazio Zuloaga jaio zela eta, hori dela-eta, artista eibartarraren obran oinarritutako lehiaketa egingo da abenduan, Ego Ibarra Batzordearen eskutik. Aurreratu dutenez, herriko 27 dendatan gauzatuko dute egitasmoa, eskaparateak museoko bitrina modura erabilita. Berez, Ego Ibarraren hasiera-

ko asmoa Zuloagaren hainbat obraren formatu handiko kopia baimenduak Eibarko kaleetan ipintzea zen. Baina hainbat arrazoi tarteko, proiektua aldatu egin da: batetik, hasierako ideiak kostu handia zuen eta ez zegoen esponsorrik; baina, batez ere, osasun-krisiak behartu ditu irizpideak eta jarduerak aldatzera.



## Konfinamenduaren inguruko zazpi film labur ekoizteko dirulaguntzen programa berria

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eta Zineuskadik 255.000 euroko aurrekontua duen dirulaguntzen programa abiarazi du "COVID-19ak ekarritako eszenatoki berriari, zehazki konfinamenduari buruzko zazpi film laburren ekoizpena babesteko". Pandemiak nabarmen kaltetu

duen ikus-entzunezko jardueraren profesionala suspertzea da asmoa. Gainera, lan horiek EAEko biztanleentzat eskuragarri egotea bermatu dute, Donostiako Zinemaldiak eta Zinebik hartutako konpromisoari esker. Informazio gehiagorako [www.zineuskadi.eu/Convocatorias](http://www.zineuskadi.eu/Convocatorias) helbidean begiratu.



## Idazlearekin Harixa Emoten

Juan San Martin udal liburutegiak eta ...eta kitto! Euskara Elkarteak elkarlanean antolatzen duten "Idazlearekin Harixa Emoten" euskerazko irakurketa klubean parte hartu nahi dutenentzat izen-ematea zabalik egongo da, irailaren 16ra arte. Idazleak bere liburua irakurri duten irakurleei haren gaineko ideiak, esperientziak eta bizipenak elkartrukatzeke aukera eskaintzeko asmoz hilean behin (martitzenean, 19:00etan) Portalean egiten diren saioetan idazleek parte hartzen dute eta, antolatzaileek aurreratu dutenez, datorren ikasturtean ere Antxon Narbaizaren laguntza izango dute, "liburuari mamia ateratzeko". Izen-ematea liburutegian edo e-mailez egin daiteke. Doako jarduerak da eta 16 urtetik gorakoek hartu dezakete parte.

## Udazkeneko eskaintza prest UEUn

Udako Euskal Unibertsitateak prest dauka udazkeneko ikastaro eskaintza eta izen-ematea zabalik dago. Eibar, Iruñea eta Gasteizen emango dituzte, batzuk aurrez aurre eta beste batzuk online. Zerrenda osoa ikusteko, ikastaro bakoitzari buruzko informazio zehatza kontsultatzeko zein matrikula-orria betetzeko UEU365 blogera jo daiteke.



## Marrazketa eta Zeramika eskoletan ikasteko plaza hutsak geratzen dira

Eibarko Marrazketa eta Zeramika Udal Eskoletan matrikulatutako guztiak onartu dituztela jakinarazi dute arduradunek eta, taldeetan plaza hutsak geratu direnez, matrikulazio epe berria zabaldu dute, irailaren 30era arte. Matrikulazio inprimakiak eta informazioa [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus) helbidean daude eskuragarri. Matrikulazio-orria, behar bezala beteta, eta gainontzeko dokumentazioa, berriz, [pogora@eibar.eus](mailto:pogora@eibar.eus) helbidera bidali behar dira.





		5		8			
		3	4	1			
	8				7		
2		6			5		4
	3	7	6		8	5	2
	4		2			7	9
			7				1
				9	2	3	
				5		2	

	5			8	2			4
		9	4					5
		8					6	
	4	5	3	2				
	6							2
				6	1	5	4	
		4					3	
	7				9	4		
3			8	1				6

soluzioa

8	1	5	7	3	1	1	1	1
1	9	6	2	1	7	3	8	2
5	7	3	2	4	2	8	2	8
1	2	6	1	2	3	8	8	1
2	3	4	5	6	7	8	9	1
3	4	5	6	7	8	9	1	2
4	5	6	7	8	9	1	2	3
5	6	7	8	9	1	2	3	4
6	7	8	9	1	2	3	4	5
7	8	9	1	2	3	4	5	6
8	9	1	2	3	4	5	6	7
9	1	2	3	4	5	6	7	8

## SUDOKUAK


soluzioa

5	2	1	8	2	3	4	6	7
1	9	6	3	8	2	4	5	7
2	8	7	1	5	9	3	6	4
4	5	3	2	6	1	5	4	9
6	7	9	3	8	2	4	5	1
3	4	5	6	7	8	9	1	2
7	8	9	1	2	3	4	5	6
8	9	1	2	3	4	5	6	7
9	1	2	3	4	5	6	7	8
1	2	3	4	5	6	7	8	9
2	3	4	5	6	7	8	9	1

## LABIRINTOA



## MARGOTZEKO



- 1 ● 2 ● 3 ● 4 ● 5 ● 6 ●

## Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

## Farmaziak

### BARIXAKUA 4

EGUNEZ | Mendinueta (Urkizu, 6)

### ZAPATUA 5

EGUNEZ | Castaño (J. Etxeberria, 7)

### DOMEKA 6

EGUNEZ | Zulueta (San Agustin, 5)

### ASTELEHENA 7

EGUNEZ | Morgado (San Agustin, 3)

### MARTITZENA 8

EGUNEZ | Castaño (J. Etxeberria, 7)

### EGUAZTENA 9

EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)

### EGUENA 10

EGUNEZ | Barandela (Z. Agirre, 4)

### BARIXAKUA 11

EGUNEZ | Lekunberri (Isasi, 31)

GAUEZ BETI, 2020an,  
Barandela (Ziriako Agirre, 4)

## Eguraldia (euskalmet.net)



## Hildakoak

- Ines Guillen Magro. 54 urte. 2020-7-16.
- Fermin Alzibar Mendoza. 78 urte. 2020-7-18.
- Xabier Larreategi Osa. 85 urte. 2020-7-19.
- Ramon Zenarruzabeitia Peypoch. 57 urte. 2020-7-20.
- David Egiazu Ansola. 80 urte. 2020-7-22.
- Josefa Laskurain Kortaberria. 90 urte. 2020-7-23.
- Ana M<sup>a</sup> Iturriarte Olabarri. 91 urte. 2020-7-24.
- Eusebio Lopez Axpe. 78 urte. 2020-7-25.
- Jabier Larrañaga Labaka. 54 urte. 2020-7-25.
- Ceferino Marcos San Juan. 86 urte. 2020-7-26.
- Juanita Etxaniz Urkidi. 92 urte. 2020-7-26.
- Benigno Dieguez Del Rio. 86 urte. 2020-7-29.
- Encarnacion Garcia Abad. 100 urte. 2020-7-29.
- Felisa Landa Aiarzaguena. 90 urte. 2020-8-1.
- M<sup>a</sup> Carmen Sañudo Armentia. 86 urte. 2020-8-1.
- Lucia Gisasola Santos. 93 urte. 2020-8-2.
- Elena Macho Berroya. 75 urte. 2020-8-2.
- Jon Sobron Yeregi. 53 urte. 2020-8-2.
- Angel Calvo Salcedo. 87 urte. 2020-8-5.
- M<sup>a</sup> Luisa Etxabe Urbietia. 80 urte. 2020-8-5.
- Celsa Conde Gonzalez. 93 urte. 2020-8-5.
- Juan Otegi San Sebastian. 96 urte. 2020-8-7.
- Pruden Mendikute Egaña. 68 urte. 2020-8-7.
- Estrella Castro Medina. 90 urte. 2020-8-7.
- Antonio Ormazabal Goenaga. 81 urte. 2020-8-8.
- Maria Miguel Martin. 105 urte. 2020-8-11.
- Jose Sololuze Olasolo. 87 urte. 2020-8-13.
- Amor Garcia-Anton Garcia-Abad. 86 urte. 2020-8-14.
- Serafina Alba San Miguel. 93 urte. 2020-8-18.
- Josefina Barcena Perez. 94 urte. 2020-8-20.
- Fernando Luis Cuevas Egurrola. 75 urte. 2020-8-21.
- Carmen Areta Lezeta. 89 urte. 2020-8-23.
- Pedro M<sup>a</sup> Albeniz Imaz. 93 urte. 2020-8-23.
- Juan Jose Aranberri Ostolaza. 77 urte. 2020-8-25.
- Angela Arrizbalaga Bastida. 94 urte. 2020-8-25.
- Jose Angel Arrieta San Pedro. 77 urte. 2020-8-28.
- Luisa Astigarraga Aranguren. 94 urte. 2020-8-28.
- Arrate Lizarriturri Gorostegi. 74 urte. 2020-8-29.
- Begoña Aranguren Odriozola. 73 urte. 2020-8-29.
- Alejandro Richart Hontangas. 93 urte. 2020-9-1.

## Jaiotakoak

- Naiara Pineda Rodriguez. 2020-7-13.
- Aitor Etxeberria Baraizarra. 2020-7-20.
- Iker Etxeberria Baraizarra. 2020-7-20.
- Koldo Beato Segura. 2020-7-24.
- Ariana Pacheco Duarte. 2020-7-24.
- Libe Baztarrrika Agirre. 2020-7-26.
- Martin Palacio Jimenez. 2020-7-26.
- Yunez Bujari Yeslem. 2020-7-29.
- Hudaifa El Fakiri. 2020-7-31.
- Luka Ramirez Rico. 2020-7-31.
- Uxue Merejo Barreiro. 2020-7-31.
- Maia Gabilondo Iglesias. 2020-7-31.
- Eki Hernaez Gamarra. 2020-8-4.
- Lea Ezenarro Sierra. 2020-8-6.
- Eneko Gabirondo Fernandez. 2020-8-8.
- Danel Betondo Azpeitia. 2020-8-12.
- Ekhi Varela Carballo. 2020-8-14.
- Lukas Arregi Sanjurjo. 2020-8-19.
- Amira Sofia Bensaid Joya. 2020-8-19.
- Raihan Malek Bensaid Joya. 2020-8-19.
- Hama Ali Hamad. 2020-8-21.
- Gara Baglietto Ibaibarriaga. 2020-8-21.
- Carla Ibañez Crespo. 2020-8-23.
- Jon Aranburu Iraolagoitia. 2020-8-23.
- Unai Milikua Berrizbeitia. 2020-8-25.
- Salsabil Bendaoud. 2020-8-25.
- Nora Lamariano Bastarrika. 2020-8-31.

## GREGORIO ALBERDI OSORO "GOIO"

3. urteurrena: 2017-VIII-31

"Betirako gure bihotzetan"

SENITARTEKOEN PARTEZ





688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



### Zorion-agurrak ez ditugu bulegoan aurrez-aurrez hartuko

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20 ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazu.



Zorionak, **TELMO** Azkuenaga, abuztuaren 3an 7 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **GARI**, mutil haundi! 2 urte! Besarkada haundi bat zure famelixaren eta, batez be, Unax, Beñat eta Markelen partez.



Zorionak, **OIER**, mutil haundi, bixar 4 urte beteko dozuz-eta. Ondo pasau eguna. Musu pillua famelixa guztiaren partez, mua!!!!!!



Zorionak, **EKAIN**, 13 urte beteko dozuzelako Arrate bezperan. Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **DANEL**, gure etxeko txikitxua! Maite zaittugu pilla! Amama, aitxita, ama, aitta eta, batez be, Anderren partez.



Zorionak, **JULEN!** 3 urte bete dozuzelako eta asko-asko maite zaittugulako. Aitaxo eta amatxoren partez!



Zorionak, **BERA!!!** Etxeko txikixak urtia beteko dau bixar-eta. Patxo haundi bat Manex eta Pauleren partez.



Zorionak, **XABIER**, gaur 3 urte betetzen dozuz-eta. Famelixa guztiaren eta, batez be, Josu zure anaixaren partez.



Zorionak, **ANE** Agote Ramirez, abuztuaren 29xan 4 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **JUNE**, abuztuaren 26xan 8 urte bete zenduaz-en-eta! Musu haundi bat, printzesa, famelixa guztiaren eta, batez be, Elenen partez.



Zorionak, **IRATI**, abuztuaren 30ian 10 urte egin zenduaz-en-eta. Besarkada erraldoi bat danon partez!



Zorionak, **MONICA**, abuztuaren 26xan zeure urtebetetzia izan zan-eta. Musu haundi bat danon partez.



Zorionak, **LUCIA** eta **ANE!** Gure printzesak oporretan 4 eta 6 urte bete dittue-eta. Patxo potoloooo! Batez be, Iñaki, Luka eta Mikelen partez.



Zorionak, **MANEX** (abuztuaren 8xan, 7 urte) eta amatxo **SUSANA**, urtiak bete dozuez-eta. Musu haundi bana.



Zorionak, **IXONE**, hillaren 7xan 8 urte beteko dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez, gure pitxintxuari!!!



Ongi etorri, **GARA!** Abuztuaren 21ian jaio zifian gure bihotzak alaitzeko. Musu potolo bat Aitzol eta Nerearentzat, etxeko guztien partez.



**JUNE** abuztuaren 27xan jaixo zaigu Alemanian. Ongi etorri! Zure bidaia ikasgaiez betia eta zorionsua izan dadilla.



Zorionak, **OSKITZ!** Bixar 3 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat guraso, aitxita-amama eta tiaren partez. Asko maite zaittugu!

**San Andres Gozotegia**

- tartak
- enkarguak
- etxera

Bidebarrieta, 28  
☎ 943 20 79 73

**Izadi**  
**LORADENDA**

San Juan, 1    Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE NATURAL ETA LEHORRAK  
EZKONTZETARAKO LORAK  
ZENTROAK  
ERRAMUAK  
*Enkarguak etxera*

# Iragarki laburrak


**688 62 76 89**

publizitatea@etakitto.eus

**Iragarki laburrak ez ditugu bulegoan aurrez-aurre hartuko**

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 3. LOKALAK

### 3.1. Salgai

- Garajea hartuko nuke Urki-Txaltxazelai inguruan. Tel. 645-007388. Jasone.
- Garaje itxia salgai Polonia Etxeberria kalean. Tel. 610-835256

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (Jaurilaritzako titulua) eta etxeak eta bulegoak garbitzeko. 8 urteko esperientzia. Tel. 603-514085.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Eri-zain-laguntzaile tituluekin. Goizez, eta arratsalde 16:00ak arte. Tel. 643-410742.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientziarekin. Egun osoko disponibilitatea. Tel. 650-257850.
- Neska eibarra eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 658-845081.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientziarekin. Tel. 667-060292.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 660-542155.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Esperientziarekin. Tel. 642-855788.
- Mutil arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko, eraikuntzan jarduteko eta mendian edo baserrian lan egiteko. Tel. 662-415709.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaindu eta beste edozein lanetarako. Tel. 722-531998. Jesus.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko: kalera atera, eskolako lanetan lagundu... Tel. 602-353585.
- Emakumea eskaintzen da lleapaindegi-lana egiteko etxetz-etxe. Tel. 660-378181.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Autoarekin. Tel. 657-794652. Nerea.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 604-149786.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Goizez. Tel. 617-571210.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Mendekotasuna dutenekin lan egiteko titulazioa. Externa. Tel. 666-197831.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak

zaintzeko. Baita gauzez ere. Externa. Tel. 632-576611.

- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 611-320827.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-170364.
- Neska euskalduna eskaintzen da irailetik aurrera gaixoak edo nagusiak zaintzeko. Urte askotako esperientzia. Tituluarekin. Tel. 667-376212.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Tituluarekin. Tel. 637-966749.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko, etabar. Tel. 632-729261.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-204057.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 12 urteko esperientzia eta erreferentziak. Tituluarekin. Tel. 604-120104.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 626-197217.

### 4.2. Langile bila

- Eibarko emakume euskalduna behar da umeak eta etxeko-lanak egiteko eskolan dauden bitartean. Goizeko 7etatik 14:30 ra. 70 ordu inguruko kontratua. Hilean 10 egun. Tel. 636-379481.
- Langilea behar da Eibarko harategi batean. Bidali curriculum: eibarharategia@gmail.com
- Kamarera/o behar da Tiro Pitxoi jate-txerako. Autoa izatea ezinbestekoa. Bidali curriculum Eibarko 46 postakutxatilara.

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.1. Eskerak

- Irakaslea behar da gaztelerazko klase trinkoak emateko. Tel. 661-874548.


### 5.2. Eskaintzak

- Klase partikularrak ematen dira: LH, DBH eta Batxilergoa. Edozein materia. Presentzialak eta on-line. Tel. 678-937827.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestakuntzako ikasleei. Antzeko ezaugarriko 4 laguneko taldeak gehienez. Gainditu dutenen indize handia. Urte askotako esperientzia. Tel. 615-705945..
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

- Institutuko 4. DBHko liburuak salgai. 10 euro bakoitza. 15 euro bilduma direrak. Tel. 667-376212.


**688 62 76 89**

publizitatea@etakitto.eus



NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA

# ZELETA BARAZKIAK



*Ekoizpen prozesuan  
energia berriztagarriak  
erabiltzen ditugu*



- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa
- Ortutik mahaira: Bertako produktuetan erantzunik gertukoena

Orain Eibarko  
BM-n ere bagaude

Ekoizpenaren %100 hazte-zikloa zainduz eta tratamendu kimikoen erabilera saihestuz lortzen dugu

**ZELETA BASERRIA** • San Migel auzoa / ELGOIBAR • Tfnoa: **609 35 76 19** • [www.zeletabaserria.com](http://www.zeletabaserria.com)

## Irailaren 1<sup>etik</sup> 25<sup>era</sup> MATRIKULA ZABALIK



Zure bizitza

# EUSKARAZI!



Euskaraz hasi • Euskaraz hasi • Euskaraz bizi.

### 2020-21 ikasturtea

**- MAILA GUZTIETAKO  
euskaraz ikastaroak**

16 urtetik  
gorakoentzat

1. MAILA		2. MAILA	3. MAILA	4. MAILA
A1	A2	B1	C1	C2
OINARRIZKO ERABILTZAILEA		ERABILTZAILE AURRERATUA	ERABILTZAILE ADITUA	

- Autoikaskuntza: Bakarkako lana, tutoretzak eta mintzasaiolak
- Etorkinentzako harrera-ikastaroak (AISA)
- Jubilatuentzako ikastaroak
- Azterketa prestakuntza
- HABEko titulu ofizialak

ordutegi zabalak

**TARIFA BEREZIAK:** %20, %50 eta %75eko DESKONTUA  
**KONTSULTATU**

*Eibarko*  
**Udal Euskaltegia**  
**35 urte zuekin!**



Bista Eder, 10 -PORTALEA-  
[euskaltegia@eibar.eus](mailto:euskaltegia@eibar.eus)  
Tfnoa: 943 70 09 12  
Faxa: 943 82 00 89







EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA



Hizkuntza Eskola Ofizialak  
Escuelas Oficiales de Idiomas

# Eibarko Hizkuntza Eskola



MATRIKULAZIO  
OFIZIALA:

**Irailaren**

**1etik 28ra**

Otaola, 29 (Jaizkibel eraikina)

**DEUTSCH ENGLISH EUSKARA FRANÇAIS**



**IKASTARO**

**ERDIPRESENTZIALAK**

hizkuntza guztietan

– eskolan eta on line (Moodle plataforma) –

Arrasaten eta Azkoitian

**GELA**

**DESPLAZATUAK**

ere badauzkagu



**\*14 urtetik gora:** *Frantsesa eta Alemana* (eskolan Ingelesa atzerriko lehen hizkuntza bada).  
**16tik gora:** Edozein hizkuntza.

**14 urtetik gora\***

Matrikula on-line egin beharko da ondorengo web orrian:

[www.eoieibarheo.hezkuntza.net](http://www.eoieibarheo.hezkuntza.net)

IKASGUNEA plataformaren bitartez

Ikasturte osoaren prezioa: **72,36 euro**

